| 2019KO URRIAREN 31N, LEHENENGO DEIALDIAN GETXOKO UDALBATZAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA. | ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO, EL DÍA 31 DE OCTUBRE DE 2019. |
|---|---|
| ============================== | ============================== |
| **BERTARATUAK** | **ASISTENTES** |
| **LEHENDAKARIA** | **PRESIDENTA** |

Amaia Aguirre Muñoa and.

| **ALKATEORDEAK** | **VICEALCALDESAS Y VICEALCALDE** |
|---|---|

Keltse Eiguren Alberdi (EAJ-PNV)
Carmen Diaz Perez (PSE-EE)
Ignacio Uriarte Gorostiaga (EAJ-PNV)
Irantzu Uriarte Gómez (EAJ-PNV)

| **ZINEGOTZIAK** | **C O N C E J A L E S** |
|---|---|

Alvaro González Pérez (EAJ/PNV)
Joseba Arregi Martínez (EAJ/PNV).
Iñigo Urkitza Yañez (EAJ/PNV).
Carlos Sergio Achotegui (EAJ/PNV)
Janire Ocio Celada (EAJ/PNV)
Ainhoa Galduroz Alvarez (EAJ/PNV)
Arantzazu Rica Alvarez (EAJ/PNV)
Eduardo Andrade Aurrecoechea (PP).
Francisco J. Elorza Hormaeche (PP).
Gonzalo Zorrilla-Lequerica Pañeda (PP)
Alicia González Del Valle Francos (PP)
Natalia Aranduy Zuazagoitia (PP)
Ibon Rodríguez Larrinaga (EH BILDU)
Itxaso Maseda Saratxo (EH BILDU)
Cristina Zamora Chuquiguanga (EH BILDU)
Gonzalo Ayo Jimenez (PSE-EE)

Asunción Olaeta Perez De Mendiola (PSE-EE)
Ignacio Robles Fernández (E. PODEMOS)
Paula Amieva Clemente (E. PODEMOS)

| **IDAZKARI NAGUSIA** | **SECRETARIO GENERAL** |
|---|---|

Ignacio Javier Etxebarria Etxeita jn.

Getxoko Udalaren Udaletxeko Bilkura Aretoan eta Alkate-Lehendakaria Amaia Aguirre Muñoa andrea dela, egun horretako goizeko bederatzietan, Udalaren Osoko Bilkura bildu da, lehen deialdian, ohiko bilkura egiteko. Bilkura horretara lehen adierazitako kideak joan dira eta baita kontu-hartzaile nagusia ere, Nuria Hernández Soto andrea.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial de Getxo y bajo la presidencia de la Alcaldesa-Presidenta, Amaia Aguirre Muñoa, se reunió a las nueve horas de este día el Pleno del Ayuntamiento, para celebrar sesión ordinaria, en primera convocatoria, con asistencia de los corporativos expresados al margen, más la Interventora general, Nuria Hernández Soto.

Alkateak, gai-ordenarekin hasi aurretik, Osoko Bilkurari esan dio larrialdiko mozioa aurkeztu dutela EH Bildu eta Elkarrekin Podemos talde politikoek, eta hori landuko dutela udalbatzako organoen kontrola jorratzen hasi aurretik.

La Alcaldesa, previamente a iniciar el tratamiento del orden del día, informa a la corporación que se ha presentado una moción de urgencia por parte de los grupos políticos municipales de EH Bildu y Elkarrekin Podemos cuya urgencia se tratará antes de iniciar la parte del pleno dedicada al control de los órganos de la corporación.

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, bilkurari hasiera eman dio eta jarraian Deialdiko Aztergaien Zerrenda barruan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaitza honakoa izan da:

La Alcaldesa, visto que existía número legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

## EBAZPEN ATALA

## PARTE RESOLUTIVA

### 154.- GETXOKO UDALBALTZAK 2019KO IRAILAREN 26AN EGINDAKO AURREKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

### 154.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 26 DE SEPTIEMBRE DE 2019.

**ONESTEA.**

2019ko irailaren 26an Getxoko Udalbatzak ohiko egindako bilkuraren akta aho batez onestea.

Por unanimidad se aprueba el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada por el Pleno del Ayuntamiento de Getxo el día 26 de septiembre de 2019.

**ANTOLAKUNTZA ETA KONTUAK**

**ORGANIZACIÓN Y CUENTAS**

**155.- ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ZERGA-ORDENANTZAREN ALDARAZPENA BEHIN-BEHINEAN ONESTEA.**

**155.-. APROBACIÓN PROVISIONAL DE MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE BIENES INMUEBLES.**

Alkateak esan du Elkarrekin Podemos taldeak sarrera erregistroko 34232 eta 34235 zenbakiekin aurkeztutako zuzenketak ez direla bozkatuko zerga kudeaketako aholkulari juridikoaren txostenean oinarrituz. Bertan jasota dago zuzenketek ez dituztela betetzen zerga araubidean jasotako xedapenak.

La Alcaldesa indica que las enmiendas presentadas por Elkarrekin Podemos con números de registro de entrada 34232 y 34235 no serán objeto de votación en base al informe emitido por la asesora jurídica de gestión tributaria en el que manifiesta que no se acomodan a las determinaciones recogidas en la normativa tributaria.

Ondoren, Elkarrekin Podemos taldeak aurkeztutako zuzenketak batera eztabaidatzen hasi dira.

A continuación se proceden a debatir de manera conjunta las enmiendas presentadas por Elkarrekin Podemos.

Paula Amievak esan du 6 zuzenketa aurkeztu direla OHZ bidezkoagoa izateko. Esan du beharrezkoa dela eraginkortasun energetikoari buruzko hobariei buruz eztabaidatzea eraginkortasun energetikoko etiketak oinarri hartuz, nahiz eta Bizkaiko araubidean kontzeptu horiek jasota ez egon, Arabako foru araubidean jasota baitaude. Bizkaiko araubidean bakarrik eguzki panelak daude jasota, eta hori ez dator bat gaur egun eraginkortasun energetikoari bideratutako elementuen inguruabarrekin. Bere ustez klima aldaketa kontu larria da, eta horregatik, zerbait egin behar da. Proposatu dute gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonentzako hobariak egotea, eta

Paula Amieva manifiesta que han presentado 6 enmiendas para que el IBI sea más justo. Plantea la necesidad de abordar el debate de bonificaciones sobre la eficiencia energética en base a las etiquetas de eficiencia energética aunque la normativa de Bizkaia no recoge dichos conceptos que sí vienen recogidos en la normativa foral de Alava. La normativa bizkaina se limita a recoger solo paneles solares, lo cual no es acorde a las actuales circunstancias de los elementos destinados a la eficacia energética. Entiende que el cambio climático es algo muy grave y que por ello hay que actuar. Plantean bonificaciones también para personas en situación de exclusión

horretarako foru araubidea aldatu behar bada, hori egiteko eskatu du. Bere ustez eraikuntza enpresen hobariak gehiegizkoak dira, eta hobari fiskalak foru araubidean jasotako gutxienekora murriztu nahi dituzte. Merkataritza lantzea ere proposatu dute, eta eskatu dute merkataritza jardueretako higiezinetan OHZ ez gehitzeko. Etxebizitza hutsentzako errekargu bat egotea proposatu dute, ahal den heinean etxebizitza hutsak alokairu merkatuan jartzeko.

social y si para ello es necesario modificar la normativa foral lo que pide es que se realice. Cree que las bonificaciones para los constructores son excesivas y plantean reducir el beneficio fiscal al mínimo que recoge la normativa foral. También plantean atender al comercio y piden que no se incremente el IBI a inmuebles destinados a la actividad comercial. Plantean un recargo a las viviendas vacías para ayudar desde las posibilidades locales a que se incorporen las viviendas vacías al mercado de alquiler.

Gonzalo Ayok esan du proposatutako zuzenketetan badaudela alderdi positiboak, baina Osoko Bilkuraren eskumenekin bat eginez jardun behar dela. Esan du OHZ aldatzeko proposamenean zerbait oso zehatza planteatu zela, hau da, karga tasa igotzea beste administrazio batzuetako gehikuntzekin bat eginez, eta uste dute zuzenketetan proposatutako eztabaida ez dela horretarako, beren proposamenak lantzeko beste eztabaida bat egin behar baita, hau da, zuzenketen ondorio ekonomiko guztiak aztertu behar baitira. Beraz, bilera honetan aurkeztutako proposamena babestuko dute finantza nahikotasuna mantentzeko.

Gonzalo Ayo indica que en relación a las enmiendas planteadas ven aspectos positivos pero hay que actuar dentro de las competencias plenarias. Recuerda que la propuesta de la modificación del IBI se limita a algo muy concreto como es la subida del tipo de gravamen en línea con los incrementos realizados en otras administraciones y creen que el debate que plantean las enmiendas no es para este momento ya que sus propuestas exigen un debate diferente para analizar todas las consecuencias económicas de las enmiendas, por lo expuesto en este pleno se limitarán a apoyar la propuesta presentada que busca mantener una suficiencia financiera.

Ibon Rodriguezek esan du PSE-EE taldeak itxarotako erantzuna eman duela, hau da, proposamenak interesgarriak direla esatea, baina ez dela horiek jorratzeko unea adieraztea. Ados daude etxebizitza hutsen OHZ gehitzeko aurkeztutako zuzenketarekin, nahiz eta badakiten neurri horrekin ez dela alokairu merkatua ia aldatuko, baina herritarrei zuzendutako mezua da. Etxebizitza

Ibon Rodríguez manifiesta que la postura el PSE-EE era la esperada que es manifestar que les perecen interesantes las propuestas pero que no es el momento de tratarlas. Están de acuerdo con las enmiendas presentadas respecto al incremento del IBI en las viviendas vacías aún sabiendo que esa medida no va a alterar significativamente el mercado de alquiler pero es un mensaje a la ciudadanía. En el estudio sobre

hutsei buruz egindako azterketan ondorioztatu zen etxebizitza asko hutsik daudela eman arren, jendea bizi dela horietan, Getxon erroldatuta ez daudenak hain zuzen ere. Merkataritza hobariei buruzko zuzenketak ere babesten dituzte, eta eraikuntzei buruzko zuzenketari buruz diote nahiago luketela bakarrik eraikuntza enpresei zuzendutako hobaria kenduko balute, baina hala ere babestu egingo dutela, hobaria murrizten baita, eta berdina uste dute eliza katolikoari buruzko zuzenketei buruz, hobaria kentzearen alde baitaude, nahiz eta jakin Aulki Santuarekin dauden akordio batzuk direla-eta derrigorrezkoa dela horiek mantentzea.

viviendas vacías se descubrió que muchas viviendas que figuran como vacías tienen habitantes pero que no están empadronados en Getxo. Apoyan también las enmiendas relativas a la bonificación al comercio y respecto a la enmienda sobre las construcciones prefieren quitar la bonificación que beneficia únicamente a las constructoras pero la apoyarán porque supone reducir la bonificación y lo mismo opinan respecto a las enmiendas sobre la iglesia católica ya que son partidarios de quitar la bonificación aunque conocen la existencia de unos acuerdos con la Santa Sede que obligan a su mantenimiento.

Gonzalo Zorrilla-Lequericak esan du PPk 4 zuzenketa aurkeztu dituela. Esan dute ados daudela Elkarrekin Podemosek merkataritzaren inguruan aurkeztutako 4 zuzenketekin, baina horri buruzko zuzenketa bat aurkeztu dute, OHZ murrizteko. Elkarrekin Podemosen beste zuzenketetan kontra bozkatuko dute, gobernu taldea zekena baita hobarietan, eta behin bada ere erabili direnez, babestu egingo dituzte. Eliza katolikoari buruzko eta etxebizitza hutsen errekarguei buruzko zuzenketetan kontra bozkatuko dute, Batzar Nagusietan OHZren Foru Araua izapidetzean izandako ikuspegiarekin bat etorriz, beraien iritziz ez baita neurri positiboa etxebizitzen arazoa konpontzeko.

Gonzalo Zorrilla-Lequerica indica que el PP ha presentado 4 enmiendas. Manifiestan su acuerdo con cuatro de las enmiendas de Elkarrekin Podemos sobre el comercio pero han presentado una enmienda en ese sentido en la que plantean reducir el IBI. A las otras enmiendas de Elkarrekin Podemos van a votar en contra ya que el equipo de gobierno se caracteriza por ser rácano en las bonificaciones y para una vez que las utilizan las apoyarán. Votarán en contra de la enmienda relativa a la iglesia católica y también contra los recargos a las viviendas vacías, en coherencia con su postura en Juntas Generales en la tramitación de la norma foral del IBI porque consideran que no es una medida positiva para solucionar la problemática de la vivienda.

Ignacio Uriartek esan du zenbait proposamen interesgarri egin direla, eta etorkizuneko udal politiketarako aztertuko direla. Proposamenean bakarrik tasa eta zerga eguneratzen dira % 1,1 gehituz, hau da, KPIren

Ignacio Uriarte indica que se han planteado algunas propuestas interesantes, que se valorarán para futuras políticas municipales. La propuesta se limita a actualizar el tipo y el impuesto incrementando el 1,1%, es decir, acompasarlo al incremento del

gehikuntzarekiko egokitzapena egitea proposatu da. Gogorarazi du OHZ udalaren diru-sarreren % 15 dela, eta politika fiskala ez dela udal politikak ezartzeko bide bakarra, bere iritziz gastu politiken bitartez egin behar baita. Merkataritzan OHZ jaisteari dagokionez uste du horren onurak jabeek jasango lituzketela, eta normalean ez direla saltokiak ustiatzen dituztenak, eta gainera, udalaren zergek ez dute ondorio nabarmenik merkataritza jardueraren kostuetan. Gogorarazi du aurreko urtean ez zela OHZ gehitu, eta esan du politika publikoak gastuarekin egin behar direla, eta horretarako beharrezkoa dela udalaren diru-sarrerak izatea.

IPC. Recuerda que el IBI supone el 15% de los ingresos municipales y la política fiscal no es la única vía de establecer políticas municipales, que en su opinión debe de realizarse a través de las políticas de gasto. Respecto a la bajada del IBI al uso comercial, esto beneficiaría a los propietarios que no son habitualmente los que explotan los comercios y además la imposición municipal no tiene efectos significativos en los costes de la actividad comercial. Recuerda que el año pasado no se incrementó el IBI e insiste en que las políticas públicas se han de hacer con el gasto y para ello es necesario tener ingresos municipales.

Paula Amievak PSE-EE taldeari esan dio ordenantzari buruzko proposamenak aurkezteko unea dela. Arraroa iruditzen zaio batzuetan azterketa ekonomikoak eskatzea eta beste batzuetan ez. EH Bilduk egindako ekarpenak eskertu ditu, eta esan du foru arauan hobariak kentzeko aukerei buruz mugak daudela ezarrita. Espero dute zuzenketa guztiak bozkatzea, eta uste dute txostenak ez direla aitzakia izan behar bozkatu ezin izateko. EAJri esan dio badakiela OHZ garrantzitsua dela diru-sarreretan, baina Elkarrekin Podemosek kenkariekin batera errekarguak ere proposatu ditu. Merkataritza jabeek OHZ gehitzean errentan ondorioak izango dituzte, eta hori negatiboa da merkataritza jarduerarako.

Paula Amieva indica al PSE-EE que sí es el momento de presentar estar propuestas sobre la ordenanza. Le extraña que en este caso pidan análisis económicos y en otros casos no. Agradece la intervención de EH Bildu y recuerda que la normativa foral establece límites sobre las posibilidades de suprimir bonificaciones. Esperan que se voten todas las enmiendas y creen que los informes no pueden ser excusa para que no se procedan a votar. Al PNV le manifiesta que conoce la importancia del IBI en los ingresos, pero Elkarrekin Podemos ha planteado a la vez que deducciones también recargos. En el comercio los propietarios si ven incrementado el IBI repercutirán el mismo en la renta, lo cual es negativo para la actividad comercial.

Ibon Rodriguezek esan du ez dakiela zenbat zuzenketa bozkatuko dituzten. EAJ kritikatu du, zergak bakarrik diru-bilketa gisa ikusten dituztelako, eta EH Bilduk uste du birbanaketa politikaren

Ibon Rodríguez indica que tienen dudas acerca de cuantas enmiendas se van a votar. Critica al PNV por tener una concepción de los impuestos meramente recaudatorio mientras que EH Bildu cree que son parte de una

parte direla. Gainera, uste dute kudeaketa ez dela ona udal batean aurrekontuaren % 10 gastatzen ez baldin bada. Uste du etxebizitza hutsetan OHZ gehitzean ez dela konponduko etxebizitzen arazoa, baina hurrengo aurrekontuan aurkeztu bezala, emantzipazioko laguntzak kentzean ere arazoa konponduko ez dela adierazi du. Bukatzeko, esan du aurreko urtean OHZ gehitu ez izana gobernu taldearen ardura dela, horixe erabaki baitzen PPrekin batera.

Ignacio Uriartek etxebizitza hutsen errekarguei buruz esan du udalean landuko dela gai hori etxebizitza plan berria aurkezten denean, neurri bat izan daitekeelako, eta horrenbestez, aztertu egin beharko delako.

Jarraian, Elkarrekin Podemos taldearen zuzenketa (sarrera-erregistro zk.: 34229) bozkatu da eta ezetsi egin da: aldeko 5 boto (EH Bildu eta Elkarrekin Podemos) eta kontrako 19 boto (EAJ-PNV, PP eta PSE-EE) egon direlarik.

*"Eliza Katolikoarenak, Espainiar Estatuaren eta Aulki Santuaren arteko ekonomia gaiei buruzko Akordioan jasotako terminoetarako bakarrik, 1979ko urtarrilaren 3koa hain zuzen ere. Hau da, bakarrik kultu eta hezkuntza jardueretarako".*

Elkarrekin Podemosen zuzenketa bozkatu da (34230 sarrera erregistroa), eta ukatu egin da aldeko 5 botorekin (EH Bildu eta Elkarrekin Podemos) eta kontrako 19 botorekin (EAJ, PP eta PSE-EE).

*"Obra berriko zein birgaitze parekagarriko urbanizazioko, eraikuntzako edo*

política redistributiva. Tampoco creen que es buena gestión que un ayuntamiento deje sin gastar más del 10% del presupuesto. Cree que el recargo del IBI en las viviendas vacías no va a resolver el problema de la vivienda pero tampoco resuelve eliminar las ayudas a la emancipación como se presenta en el próximo presupuesto. Finaliza indicando que no haber incrementado el IBI el pasado año es responsabilidad del equipo de gobierno por haberlo así acordado con el PP.

Ignacio Uriarte indica que sobre los recargos a viviendas vacías se tratará en el ayuntamiento cuando se presente el nuevo plan de vivienda ya que puede ser una medida y como tal habrá que valorarla.

A continuación se somete a votación a enmienda de Elkarrekin Podemos con registro de entrada 34229, que resulta rechazada al obtener 5 votos a favor, EH Bildu, Elkarrekin Podemos; 19 votos en contra, PNV, PP, PSE-EE.

*"Los de la Iglesia Católica, siempre y cuando sea única y exclusivamente para el uso en los términos previstos en el Acuerdo entre el Estado Español y la Santa Sede sobre asuntos económicos, de 3 de enero de 1979. Es decir, exclusivamente para actividades de culto y educativas".*

Se somete a votación a enmienda de Elkarrekin Podemos con registro de entrada 34230, que resulta rechazada al obtener 5 votos a favor, EH Bildu, Elkarrekin Podemos; 19 votos en contra, PNV, PP, PSE-EE.

*"Tendrán derecho a una bonificación del 50 por 100 en la cuota íntegra del impuesto, siempre que así se solicite por los y las*

*sustapeneko enpresen jardueraren higiezinek, beren ibilgetuen ondasunen artean ageri ez direnek, zergaren kuotan % 50eko hobaria izateko eskubidea izango dute, betiere interesdunek obra berriaren adierazpenarekin hala eskatzen badute.*
*Hobaria % 90era artekoa izan daiteke baldintza berdinetan eraikin tradizional berrien birgaikuntzetan, harriarekin egindakoak egurrezko egiturarekin eta katalogoan nolabaiteko hirigintza babesa duten eraikinetarako".*

*interesadas con la declaración de alta de obra nueva, los inmuebles que constituyan el objeto de la actividad de las empresas de urbanización, construcción y promoción inmobiliaria tanto de obra nueva como de rehabilitación equiparable a ésta, y no figuren entre los bienes de su inmovilizado.*
*Esta bonificación se incrementará hasta el 90 por 100, en las mismas condiciones, para obras de rehabilitación de edificios tradicionales realizados en piedra con estructura de madera, así como edificios catalogados con algún tipo de protección urbanística."*

Elkarrekin Podemos taldearen zuzenketa (34238 sarrera erregistroa) baztertu egin da aldeko 10 botorekin (PP, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos) eta aurkako 14 botorekin (EAJ eta PSE-EE).

Se somete a votación a enmienda de Elkarrekin Podemos con registro de entrada 34238, que resulta rechazada al obtener 10 votos a favor, PP, EH Bildu, Elkarrekin Podemos; 14 votos en contra, PNV, PSE-EE.

*"Ondasun Higiezinen gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskala aldatzeko proiektuaren barnean LEHENENGO puntua aldatzea, ordenantzaren 9.3. artikuluari dagokionez. Beraz, MERKATARITZA (C) hirigintza erabileragatik bereizitako karga tasa aldatu gabeko ordenantzan jasotako tasan mantenduko da, hau da, % 0,3262.*

*Beraz, 9. artikuluko 3. atala ez da aldatuko, eta orain arte zegoen moduan idatzita mantenduko da".*

*"Modificar, dentro del Proyecto de Modificación de la Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, el punto PRIMERO en referencia al artículo 9.3 de la ordenanza, dejando el tipo de gravamen diferenciado por uso urbano de COMERCIO (C) en el tipo que constaba en la ordenanza sin modificar, es decir, un 0'3262%.*

*Suponiendo así la no modificación del artículo 9, en su apartado 3, quedando escrito en los mismos términos que constaba hasta ahora."*

Elkarrekin Podemosen zuzenketa bozkatu da (34240 sarrera erregistroa), eta ukatu egin da aldeko 5 botorekin (EH Bildu eta Elkarrekin Podemos) eta kontrako 19 botorekin (EAJ, PP eta PSE-EE).

Se somete a votación a enmienda de Elkarrekin Podemos con registro de entrada 34240, que resulta rechazada al obtener 5 votos a favor, EH Bildu, Elkarrekin Podemos; 19 votos en contra, PNV, PP, PSE-EE.

*"VII. atala "HOBARIAK ETA ERREKARGUAK" deituko da; eta hala, 10. artikuluan 8. zenbakia gehituko da, errekargu hau gehitzeko:*

*"Que el apartado VII pase a tener el título "BONIFICACIONES Y RECARGOS"; Y así poder añadir al artículo 10 un apartado número 8 para incluir el siguiente recargo:*

*Subjektu pasiboaren edo alokatu dutenen edo erabileraren lagapena jaso duten hirugarrenen egoitza ez diren egoitza erabilerako higiezinek zergaren kuota likidoan % 50eko errekargua jasoko dute. Aintzat hartuko da egoitza erabilerako higiezin bat bere egoitza edo bertan bizi direnen egoitza izango dela Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren sortzapen egunean hala jasota baldin badago udalerriko erroldan.*

*Los inmuebles de uso residencial que no constituyan la residencia del sujeto pasivo o de terceras personas a las que les haya sido arrendada o cedido su uso, tendrán un recargo del 50% de la cuota líquida del impuesto. Se presumirá que un inmueble de uso residencial constituye residencia de su o sus ocupantes cuando a fecha de devengo del Impuesto sobre Bienes Inmuebles así conste en el padrón del municipio.*

*Zerga ordaindu behar duen pertsona nagusien egoitza batera bizitzera joan delako etxebizitza hutsik geratu denean, betiere aurretiaz ohiko etxebizitza eratu denean, ez da errekargurik egingo, zergaren sortzapen egunean nagusien egoitzan bizi dela egiaztatzen baldin bada, eta hurrengo 20 egunetan egoitza fakturak eta egoitzaren ziurtagiri bat aurkezten badira, non jasotzen den noiz hasi zen bertan bizitzen, eta bertan bizi dela ekitaldi bakoitzeko urtarrilaren 1ean; horrez gain, behar bezala justifikatu beharko da jabeak etxebizitza alokatzeko erabakia hartu duela, alokairuko programa publiko baten bidez edo modu pribatuan".*

*En el caso de las viviendas que hayan quedado vacías como consecuencia del ingreso de la persona obligada al pago del impuesto en una residencia para personas mayores, siempre que con anterioridad hayan constituido su residencia habitual, no se exigirá el recargo cuando se acredite este ingreso en una residencia a la fecha de devengo del impuesto y se presenten, dentro de los 20 días siguientes, las facturas correspondientes a su estancia y un certificado emitido por la residencia en el que figure la fecha de inicio y su permanencia a 1 de enero de cada ejercicio; siempre y cuando se justifique adecuadamente la intención firme del propietario para alquilar dicha vivienda, ya sea mediante la intermediación de algún programa público de alquiler o de forma privada."*

Paula Amievak egindako galderei erantzunez, alkateak esan du 34232 eta 34235 zenbakidun zuzenketak ez direla bozkatuko, Zerga Kudeaketako aholkularitza juridikoak emandako txostenean oinarrituz.

A preguntas de Paula Amieva la Alcaldesa indica que las enmiendas realizadas con los números 34232 y 34235 no se van a someter a votación tal como ha indicado en base al informe emitido por la asesoría jurídica de Gestión Tributaria.

Paula Amievak erantzun du ez dagoela alkatetzaren irizpidearekin ados, balorazioa ez baita bidezkoa eta alderdikoia baita.

Paula Amieva contesta que está en contra del criterio manifestado por la Alcaldía ya que es una valoración injusta y partidista.

Jarraian, EH Bilduk aurkeztutako zuzenketa eztabaidatu da.

A continuación se procede a debatir la enmienda presentada por EH Bildu.

Ibon Rodriguezek esan du zuzenketan proposatu zutela etxebizitza hutsei % 40ko errekargua ezartzea, eta ehuneko hori proposatu zela horixe dagoelako jasota Barakaldoko ordenantza fiskalean, non EAJ eta PSE-EE dauden gobernuan. Bilbon, bestalde, errekarguaren % 20 jasotzen da, eta Bilbon gobernuan daudenak Barakaldoko alderdi berdinak dira. Esan du Eusko Jaurlaritzak egindako azterketen arabera, Euskal Autonomia Erkidego osoan alokairuak garestien dauden udalerria dela. Beraientzat deigarria da Barakaldon eta Bilbon positiboa dena Getxon ezarri ez izana, eta galdetu du ea Getxon noiz ezarriko dizkieten errekarguak etxebizitza hutsei. Gogorarazi du 2016an EH Bilduk eta EAJ alderdiak akordioa egin zutela legegintzaldi osoan tasak gehitzeari zegokionez, KPIren gehikuntzara horiek egokitzeko, eta une horretan antzeko proposamen bat proposatu zen, hau da, errekarguak ezartzea etxebizitza hutsei, eta EAJ alderdiak ez zuen onartu, inguruko udalerrietan zer egiten zutenaren zain geratzea erabaki baitzuten. Gaur egun badakigu inguruko herrietako araubidea zein den, eta hala ere, EAJ alderdiak ez du nahi errekargurik ezarri. Etxebizitza plan berri batean lanean ari den gobernu talde berria dagoela esatea ez da nahikoa beretzat, eta bere iritziz, denbora pasatzen ari da bakarrik. Kritikatu du bestalde, gobernu taldeak uste duela badela garaia emantzipazioko laguntzak kentzeko, eta horixe da legegintzaldi honetan etxebizitzen arazoa konpontzeko hartutako erabaki bakarra. Gogorarazi du gobernu taldeak ez bezala, beste talde batzuk lana egin dutela etxebizitzen arazoa

Ibon Rodríguez indica que la enmienda plantea un recargo del 40% a las viviendas vacías y la propuesta de ese porcentaje se ha realizado porque es lo que se recoge en la ordenanza fiscal de Barakaldo, municipio gobernado por el PNV y PSE-EE, en tanto que en Bilbao se recoge el 20% de recargo, municipio también gobernado por las mismas fuerzas políticas. Indica que según estudios del Gobierno Vasco Getxo es el municipio con los alquileres más caros de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Les llama la atención que lo que es positivo en Barakaldo y en Bilbao no se asuma en Getxo y se pregunta cuándo llegará el momento de aplicar recargos a las viviendas vacías en el municipio. Recuerda que el año 2016 EH Bildu llegó a un acuerdo con el PNV sobre el incremento de las tasas durante toda la legislatura para acomodarlas al incremento del IPC y en aquel momento también planteó una propuesta similar de incorporar los recargos sobre viviendas vacías que el PNV no asumió a la espera de conocer cómo se regulaba en el entorno. Ahora que se conoce la regulación del entorno tampoco quiere asumir la imposición de los recargos. La excusa de que hay un nuevo equipo de gobierno que está trabajando en un nuevo plan de vivienda no le parece suficiente y lo que se está consiguiendo únicamente es que pase el tiempo. Critica que el equipo de gobierno, por el contrario, sí cree que es el momento de suprimir las ayudas a la emancipación, que es la única decisión adoptada con efectos en la problemática de la vivienda en la presente legislatura. Recuerda que a diferencia del equipo de gobierno otros grupos llevan trabajando en la cuestión de vivienda con presentación de propuestas y el equipo de gobierno no

konpontzeko, eta proposamenak aurkeztu dituztela, baina hala ere, gobernu taldeak ez duela esperantzarik erakusten horri dagokionez. Zergak eta tasak ez dira eguneratu PPrekin akordioak egin dituztelako.

ofrece una visión esperanzadora en esta materia. Si no se han actualizado los impuestos y tasas ha sido porque han pactado con el PP.

Paula Amievak zuzenketa babestu du, uste duelako bat datorrela Elkarrekin Podemos taldeak aurkeztutakoarekin, eta gogorarazi du errekargu horiek baimenduta daudela foru araubidean eta udalerri askotan aplikatzen ari direla. Nabarmendu egin ditu Getxoko etxebizitza hutsen egoera eta alokairuko prezio altuak. Zerga hori konplexutasun eta osotasun guztiarekin jorratzeko ausardiarik ez egotea kritikatu du.

Paula Amieva apoya la enmienda porque es coherente con la enmienda que ha presentado Elkarrekin Podemos y recuerda que estos recargos los permite la normativa foral y en muchos ayuntamientos se están aplicando. Incide en la situación de las viviendas vacías en Getxo y los grandes precios del mercado de alquiler. Critica que no haya valentía para abordar en su complejidad y totalidad este impuesto.

Gonzalo Zorrilla-Lequericak aitortu du EH Bilduk Elkarrekin Podemos alderdiak baino diru-bilketa gogo gehiago duela, baina aurretik adierazitako arrazoiak direla-eta zuzenketaren aurka bozkatuko dutela adierazi du.

Gonzalo Zorrilla-Lequerica reconoce que EH Bildu tiene una voracidad recaudatoria superior a Elkarrekin Podemos pero que por las razones indicadas anteriormente se van a oponer a la enmienda.

Ignacio Uriartek eztabaidan Elkarrekin Podemos alderdiaren zuzenketei buruz esandakoak berretsi ditu. Esan du zergak ez direla birbanatzekoak, baina progresiboak izan daitezkeela, eta birbanaketa gastuan gertatzen dela. Nabarmendu du proposamenean bakarrik OHZ tasa eguneratzea dagoela jasota. Proposamenarekin bat ez datozen eta zalantzak sortzen dituzten diskurtso politikoak egitea kritikatu du, hori egitea ez baita positiboa udal politikarako.

Ignacio Uriarte se remite a lo manifestado en el debate a las enmiendas de Elkarrekin Podemos. Manifiesta que los impuestos no tienen naturaleza redistributiva aunque pueden ser progresivos y la redistribución se da en el gasto. Recalca que la propuesta es únicamente la actualización del tipo del IBI. Critica que lancen discursos políticos que no se ciñen a la propuesta y generan confusión y no es positivo para la política municipal.

Ibon Rodriguezen ustez badirudi proposamenak udalean aurkeztu aurretik batzokian aurkeztu behar direla, horiek udal politikarako

Ibon Rodríguez estima que parece ser que tendrían que presentar sus propuestas en el batzoki antes de presentarlas en el ayuntamiento para que no sean negativas para la política

negatiboak izan ez daitezen. Bere ustez, zergek eraginak dituzte banaketan batzuei beste batzuei baino diru gehiago kentzea erabakitzen denean. EH Bilduren proposamena bat dator errealitatearekin, eta etxebizitza hutsak dituztenei errekargu gehiago jartzea proposatu dute, herritar askok eskuratu ezin duten luxua baitira gaur egun etxebizitzak.

municipal. Estima que los impuestos inciden en la distribución cuando deciden quitar más dinero a unos que a otros. La propuesta de EH Bildu se ajusta a la realidad y plantean cargar más al que tiene la vivienda vacía ya que es un lujo que la sociedad no puede permitir.

Paula Amievak esan du OHZ zerga konplexua dela, eta tasa gehikuntza sinple bat baino gehiago egin nahi dutela. Gobernu taldeak ez du nahi izan oposizioko taldeekin beren proposamenei buruz hitz egin, eta jarrera horrek ez du laguntzen udal politika aurrera eramaten.

Paula Amieva indica que el IBI es un impuesto complejo y se quiere abordar más allá de lo que es un simple incremento del tipo. El equipo de gobierno no ha querido hablar con los grupos de la oposición sobre sus propuestas y esa actitud no ayuda a la política municipal.

Gonzalo Zorrilla-Lequericak esan du PPn ere kezkatuta daudela Getxoko etxebizitzen arazoa dela-eta, eta kritikatu egin du Bilboko eta Barakaldoko udalen jarduketa goraipatzea neurri horiek sortutako ondorio positiboen datu zehatzik eman gabe. PPk uste du neurri horiek ez direla egokiak, salmentarako edo alokairurako etxebizitzak ez baitira mugiarazten.

Gonzalo Zorrilla-Lequerica indica que el PP comparte la preocupación por la problemática de la vivienda en Getxo y critica que se elogie las actuaciones de los ayuntamientos de Bilbao y Barakaldo pero sin aportar ningún dato acerca de los efectos positivos que de dicha medida se hayan derivado. El PP cree que esas medidas son un error ya que no movilizan viviendas para la venta o el alquiler.

Ignacio Uriartek esan du enpresa eraikitzaileei hobariak ezartzea proposatu dela hobariak obra berriekin lotura baldin badute, eta horietan EIOZ jada aplikatzen dela, baita eraikuntza urteetako tasak ere, OHZ zergak baino ondorio ekonomiko handiagoak dituztenak.

Ignacio Uriarte puntualiza que se habla de bonificaciones a las empresas constructoras cuando la bonificación tiene que ver con la promoción de obra nueva y que a estas mismas ya se les aplica el ICIO y la tasa correspondiente durante los años de la construcción que son de mayor efecto económico que el IBI.

EH Bilduren zuzenketa bozkatu da (34169 sarrera erregistroa duena), eta ukatu egin da aldeko 5 botorekin (EH Bildu eta Elkarrekin Podemos) eta kontrako 19 botorekin (EAJ, PP eta PSE-

Sometida a votación la enmienda de EH Bildu nº de registro de entrada 34169 es rechazada al obtener 5 votos a favor, EH Bildu, Elkarrekin Podemos; 19 votos en contra, PNV, PP, PSE-EE.

EE).

*"Ondasun higiezinen gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala aldatzeko proiektuan, 9. artikuluan, hirugarren atal bat gehitu, hórrela idatzita geratuko litzatekelarik;*

*Hirugarrena.*

*1.-Ondasun higiezinek bizitegi-erabilera dutenean, eta subjektu pasiboarean edo hirugarrenen ohiko egoiza ez direnean- hirugarrenen kasuan errendamenduz edo lagapen bidez- dagokion zerga kuota likidoari %40 errekargua ezarriko zaio.*

*2.- Etxebizitzaren eranskinak barruan sartuko dira finka erregistral bakarra osatzen badute.*

*3.- Errekarguaren subjektu pasiboak izango dira zerga honetako subjektu pasiboak direnak.*

*4.- Errekargua zergaldiko lehen egunean sortuko da eta urtero likidatuko da zergarekin batera.*

*5.- Bizitegi-erabilera duen ondsun hgiezintzat hartuko da, udalerri honetako erroldan egiaztatuta badago bertan bizi den/direnen ohiko bizilekua dela Odnasun Higiezinen Zergaren sortzapen datan.*

*6.- Ez da errekargua aplikatuko honako kasu hauetan:*
*a) Ostatze, ostatu, hostal…jarduerei atxikitakoak eta horrela aitortuak badaude dagokion agintari eskudunen aurrean.*

*b) Beren helburuen artean ondasun higiezina errentan ematearen duen erakunde publiko baten esku jarritakoak.*

*"Añadir un tercer apartado en el proyecto de modificación de la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, en el artículo 9, con la siguiente redacción:*

*Tercero.*

*1.- En el caso de los inmuebles de uso residencial, cuando no se trate del domicilio habitual del sujeto pasivo o de terceros (mediante arrendamiento o cesión), a la cuota líquida correspondiente le será añadido un recargo del 40 %.*

*2.- Los anexos de las viviendas se incluirán en el caso de que formen una única finca registral.*

*3.- Serán sujetos pasivos de los recargos los sujetos pasivos del presente impuesto.*

*4.- El recargo se devengará el primer día del periodo impositivo, y se liquidará anualmente junto con el impuesto.*

*5.- Se tomarán por bienes inmuebles de uso residencial los que se encuentren certificados en el padrón municipal como vivienda habitual de los residentes a fecha de devengo del Impuesto sobre Bienes Inmuebles.*

*6.- En los siguientes casos no se aplicará recargo alguno:*
*a) Los inmuebles vinculados a actividades de alojamiento, hospedaje o hotelería, siempre que estén así reconocidos frente a la respectiva autoridad competente.*

*b) Los que hayan sido dejados en manos de una entidad pública que tenga entre sus objetivos poner en arrendamiento el bien inmueble.*

*c) Zahar etxeetan erroldatutako pertsonen titulartasunekoak diren etxebizitzak.*

*d) Udaletxearen zein bere menpeko erakunde publikoren bateko etxebizitzak.*

*e) Lan arrazoiak direla medio subjektu pasiboaren bizitokia lekualdatu denean*

*f) 1.100 €tik beherako pentsioa duten alargun zein jubilatuen etxebizitzak"*

Jarraian, PPk aurkeztutako zuzenketak eztabaidatu dira.

Gonzalo Zorrilla-Lequericak esan du lau zuzenketa aurkeztu dituztela. EAJri esan dio ez dutela egia esan, aurreko urtean Bizkaiko Foru Aldundiak katastro balioa % 1,5 igo zuelako, eta 2020an ere katastro balioa gehituko delako, eta horrek ondorioak ditu zergaren kuotan. Horrez gain, gogorarazi du Foru Aldundian EAJ eta PSE-EE alderdiak daudela gobernatzen. Beherapena eskatu dute, 2017an OHZ % 5,5 gehitu zelako udalak zerga tasaren murrizketarekin konpentsatu ez zituen katastro oinarriak eguneratu baitziren. Administrazio lagapen araubidean aparkamendurako lurzatiak dituzten herritarrei % 95eko hobaria aplikatzeko eskatu dute, hori onuragarria baita herritarrentzako, eta horrez gain, ondare babeseko eremu gisa kalifikatutako lekuetan OHZren % 100eko hobaria aplikatzea ere eskatu dute, bereziki Portu Zaharrean aplikatuko liratekeelarik horren ondorioak. Zuzenketa hau osatzeko Zerga Kudeaketako Unitatearen txosten juridikoan jasotako baldintzak behar direla esan du. Bukatzeko adierazi du azken zuzenketa eraginkortasun energetikoko elementuei hobariak

*c) Viviendas cuya titularidad sea ostentada por personas empadronadas en residencias de ancianos*

*d) Viviendas dependientes del Ayuntamiento o de sus entidades públicas.*

*e) Casos en los que el domicilio del sujeto pasivo haya sido modificado por causas de trabajo*

*f) Viviendas de personas jubiladas y de personas que perciban una pensión inferior a 1.100 euros."*

A continuación se procede a debatir las enmiendas presentadas por el PP.

Gonzalo Zorrilla-Lequerica manifiesta que han presentado cuatro enmiendas. Recrimina al PNV que no ha dicho la verdad ya que el año pasado la Diputación Foral de Bizkaia subió el valor catastral en 1,5% y para el año 2020 habrá una actualización también del valor catastral, lo que tiene efectos en la cuota del impuesto, recordando que la Diputación Foral está gobernada por el PNV y el PSE-EE. Piden la rebaja porque el año 2017 se incrementó el IBI en un 5,5% debido a la actualización de las bases catastrales que el ayuntamiento no compensó con la rebaja correspondiente del tipo impositivo. Piden también la bonificación del 95% a los vecinos que tienen parcelas de aparcamiento en régimen de concesión administrativa, lo que es beneficioso para los vecinos de la localidad y también plantea una bonificación del 100% del IBI en las áreas calificadas como protección sobre el patrimonio, lo que afectaría de manera especial al Puerto Viejo. Asumen que esta enmienda se completa con los requisitos que se han recogido en el informe jurídico de la unidad de gestión tributaria.

aplikatzeari buruzkoa dela.

Finalmente indica que la última de sus enmiendas se refiere a bonificar elementos de eficiencia energética.

Paula Amievak esan du zalantzak dituztela, ez dutela argi murrizketa orokorra gaur egungo zenbatekoan edo proposatutako gehikuntza aplikatzearen ondoriozko zenbatekoan ezarriko den. Esan du OHZren hobaria aparkamendu lurzatietan partekatu ahal dutela, baina beraien iritziz oso altua dela, eta gainera, kotxearen erabilera sustatzen dela, eta ez dakite zein ondorio sortu daitezkeen edo zein udalerritan aplikatu den. Eraginkortasun energetikoko neurriengatiko hobariari dagokionez bere iritziz gehiegizkoa da inbertsio horientzat, eta ez dator bat eraginkortasun energetikoa jorratzeko moduarekin. Bukatzeko esan du babestutako higiezinei buruzko zuzenketaren alde egingo dutela.

Paula Amieva traslada que les genera dudas si la propuesta de reducción generalizada es sobre el importe actual o sobre el importe resultante de la aplicación del incremento propuesto. Manifiesta que pueden compartir la bonificación del IBI en las parcelas de aparcamiento pero les parece muy alta y además beneficia el uso del coche sin que se sepa qué efectos puede traer ni en qué municipios se ha aplicado. Respecto a la bonificación por medidas de eficiencia energética le parece excesiva la bonificación para las inversiones que es exigen y no comparte la forma de abordar la eficiencia energética. Finalmente manifiesta que apoyarán la enmienda relativa a los inmuebles protegidos.

Gonzalo Ayok nabarmendu du PPk OHZren jaitsiera orokorra proposatzen duela eta ez datozela horrekin bat, horretarako justifikazioa deigarria zaielarik. Ezin da alde batetik zerbitzu hobeagoak eta kalitate gehiagokoak eskatu, eta aldi berean, zergak murriztea planteatu. Gehikuntza bat dator beste administrazio batzuetan onetsitakoarekin.

Gonzalo Ayo destaca que el PP plantea una bajada generalizada del IBI que no comparten y les parece llamativa la justificación para ello. No se pueden pedir mejores servicios y de mejor calidad y a la vez plantear reducir los impuestos. La subida que se plantea está en línea con lo que se ha aprobado en otras administraciones.

Ibon Rodriguezek esan du PPk zuzenketa horiek aurretik aurkeztu dituela, eta kritikatu du monumentu espazioetan hobariak eskatzeko adibide gisa beti Portu Zaharra jartzen dela, finka handi batzuk ere horien barne daudelarik, besteak beste Lezama-Legizamonekoa. Esan du OHZ modu orokorrean jaistea PPren ideologiarekin bat datorrela. Aurkeztutako

Ibon Rodríguez recuerda que estas enmiendas el PP ya las ha presentado otras veces y critica que para pedir las bonificaciones en espacios monumentales se pone siempre como ejemplo al Puerto Viejo cuando también engloban a otras grandes fincas como las de Lezama-Leguizamón. Opina que la petición de bajada generalizada del IBI es consustancial a la ideología del PP. En

zuzenketetan ez da baloratzen zein ondorio izango lituzkeen, eta ez dute babestuko ezta ere emakiden hobaria. Eraginkortasun energetikoari buruz esan du proposamen orokorra dela, eta deigarria zaie hori proposatzea PPk eguzkiaren zerga ezarri duenean. Bukatzeko esan du proposamen elektoralistak direla.

las enmiendas presentadas no se valora qué efectos tendrían ni tampoco van a apoyar la bonificación de las concesiones. Respecto a las relativas a la eficiencia energética es una propuesta generalista y les llama la atención que se proponga cuando el PP puso un impuesto al sol. Finalmente indica que estima que son propuestas electoralistas.

Ignacio Uriartek aurretiaz esandakoa berretsi du, eta horregatik zuzenketen aurka egingo du, proposamenean bakarrik zerga eguneratzea proposatzen baita, eta bere iritziz horri buruz bakarrik eztabaidatu behar dute.

Ignacio Uriarte se remite a lo manifestado anteriormente y que por ello se opondrán a las enmiendas ya que lo que se plantea en la propuesta es únicamente actualizar el impuesto y estima que el debate de debe limitar a dicha cuestión.

Gonzalo Zorrilla-Lequericak Elkarrekin Podemosi erantzunez esan du murrizketa proposamena 2019an indarrean zegoen ordenantzari buruzkoa dela. Aparkalekuen emakiden hobariei dagokienez esan du egoiliarrentzako direla eta ez txandakakoentzat. PSE-EEri esan dio zuzenketan Bizkaiko Foru Aldundiari buruz adierazitakoak katastro balioa eguneratu zelako egin zirela, eta kritikatu egin du udalak zerga tasak ez jaistea 2017an gertatutako % 5,5eko gehikuntza saihesteko. Zerbitzu publikoak mantendu behar direla uste du, baina gogorarazi du udalak diru-zaintzan 40 milioi euro dituela, eta horietatik 9 milioi bakarrik daudela konprometituta. Bere iritziz, inbertsiorik ez badago edo zerbitzuen kalitatea mantentzen ez baldin bada, gobernu taldearen axolagabekeriagatik da, ez dirua falta delako. Uste du EH Bildu obsesionatuta dagoela Lezama-Legizamoneko finkarekin, eta esan die Portu Zaharreko bizilagunei azaltzeko kontra daudela. Eraginkortasun

Gonzalo Zorrilla-Lequerica replica a Elkarrekin Podemos manifestando que la propuesta de rebaja es sobre la ordenanza vigente en el año 2019. Respecto a las bonificaciones a las concesiones de los aparcamientos indica que se refieren a los residentes y no a los rotatorios. Al PSE-EE le manifiesta que las menciones que realiza en su enmienda a la Diputación Foral de Bizkaia es porque actualizó los valores catastrales y critica que el ayuntamiento no bajó los tipos del impuesto para evitar un incremento del 5,5% que sucedió el año 2017. Está de acuerdo en que hay que mantener los servicios públicos, pero recuerda que el ayuntamiento tiene 40 millones de euros en tesorería de los cuales solo 9 millones están comprometidos. Opina que si no hay inversiones o no se mantiene la calidad de los servicios es por desidia del equipo de gobierno no por falta de dinero. Cree que EH Bildu está obsesionado con la finca de Lezama-Leguizamón y le invita a que explique su oposición a los vecinos del Puerto Viejo. Respecto a la cuestión de

energetikoari eta EH Bilduk elektoralista dela esateari dagokionez gogorarazi du 2016an ere planteatu zela, eta orduan ez zela egon hauteskunderik. Bukatzeko, esan du udalean zergak igo behar ez izateko nahikoa diru dagoela.

la eficiencia energética y la acusación por parte de EH Bildu de ser electoral, recuerda que se planteó también el año 2016 que no había elecciones. Finaliza indicando que en el ayuntamiento existe dinero suficiente para no tener que subir los impuestos.

Ibon Rodriguezek esan du baita ere PPk Portu Zaharreko bizilagunei esan behar diela hobaria Neguriko jauregietan aplikatuko dela. Udalak diru asko duela uste du, eta proposamena ez dela bidezkoa, eta onena tarteko irtenbide bat bilatzea dela proposamen honen eta gobernu taldearen proposamenaren artean, baita Elkarrekin Podemosek proposatutako errekarguak jorratzea ere.

Ibon Rodríguez indica que también el PP tiene que decir a los vecinos del Puerto Viejo que la bonificación afecta a los palacetes de Neguri. Está de acuerdo en que el ayuntamiento dispone de mucho dinero y que la propuesta no es justa y que lo mejor es buscar un punto intermedio entre esta propuesta y la del equipo de gobierno así como abordar los recargos que plantea Elkarrekin Podemos.

PPren zuzenketa (34132 sarrera erregistroa) bozkatu eta ukatu egin da aldeko 5 botorekin (PP) eta aurkako 19 botorekin (EAJ, EH Bildu, PSE-EE eta Elkarrekin Podemos).

Sometida a votación la enmienda del PP con registro de entrada nº 34132 es rechazada al obtener 5 votos a favor, PP; 19 votos en contra, PNV, EH Bildu, PSE-EE, Elkarrekin Podemos.

*"% 3 gehituko dira karga tasa orokorra eta hiri izaerako ondasun higiezinei aplikatu ahal zaizkien berezitutako karga tasak.*

*"Se reduce en un 3% el tipo de gravamen general y los tipos de gravamen diferenciados aplicables a los bienes inmuebles de naturaleza urbana."*

PPren zuzenketa bozkatu da, sarrera erregistroan 34135 zenbakia jaso zuena, eta ukatu egin da; aldeko 5 boto jaso ditu (PP), aurkako 17 boto (EAJ, EH Bildu eta PSE-EE) eta bi abstentzio (Elkarrekin Podemos).

Sometida a votación la enmienda del PP con registro de entrada nº 34135 es rechazada al obtener 5 votos a favor, PP; 17 votos en contra, PNV, EH Bildu, PSE-EE; 2 abstenciones, Elkarrekin Podemos.

*"10.-6. % 95eko hobaria jasoko dute administrazio emakida araubidean dauden egoiliarrentzako udal aparkalekuek.*
*Getxoko Udalak hobari hori ofizioz aplikatuko die egoiliar titularrei, eta edonola ere kanpo geratuko dira txandakatutako aparkamendu plazak.*
*Egoiliarren emakida eskubideen titulartasuna Getxoko Udalaren Ondare*

*"10.-6. Tendrán derecho a una bonificación del 95 % las parcelas de los aparcamientos municipales para residentes en régimen de concesión administrativa.*
*El Ayuntamiento de Getxo aplicará esta bonificación de oficio a los titulares residentes, excluyéndose en todo caso las plazas de aparcamientos rotatorios.*
*La titularidad de los derechos concesionales*

*Zerbitzuak edo berau ordezkatzen duen zerbitzuak zehaztuko du.*
*(OHARRA:) Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren gaur egungo Ordenantza Fiskalaren 10.-6 puntua 10.-9 puntua bihurtuko da".*

*de los residentes será la que determine el Servicio de Patrimonio del Ayuntamiento de Getxo, o por cualquier otro Servicio que le sustituya.*
*(NOTA:) El punto 10.-6 de la Ordenanza Fiscal actual del Impuesto sobre Bienes Inmuebles pasaría a ser el punto 10.-9."*

*"Getxoko Andres Isasi Udal Musika Eskolan zerbitzuak jasotzeagatiko tasa arautzen duen Zerga Ordenantzaren behin-behineko aldaketa proposameneko HIRUGARREN puntua ordezkatzea honen ordez:*

*"Irakaskuntza eta azterketa zerbitzuei aplikatu beharreko tarifak % 1,1 gehitzean datza proposatutako aldaketa; tarifa horiek ERANSKINAREN 3. epigrafean jasota daude. TARIFA".*

*"Sustituir el punto TERCERO de la Propuesta de aprobación provisional de modificación de la Ordenanza Fiscal reguladora de la tasa por la prestación de servicios en la Escuela de Música Municipal Andrés Isasi de Getxo por lo siguiente:*

*"La modificación propuesta consiste en el incremento en un 1,1% de las tarifas aplicables a los servicios de Enseñanza y Examen, recogidas en el epígrafe 3 del ANEXO. TARIFA."*

Elkarrekin Podemosen zuzenketa bozkatu da (34233 sarrera erregistroa izan zuena) eta aho batez onetsi dute.

Sometida a votación la enmienda de Elkarrekin Podemos con registro de entrada nº 34233 es aprobada por unanimidad.

*"Indarrean dagoen ordenantza guztia berrikusiko da hizkera maskulinoa zuzentzeko eta guztiz inklusiboa izateko, eta beraz, gaztelaniaz adibidez "usuarios" jarri beharrean "usuarios y usuarias" jarriko da, beste adibide batzuetan ere horrela jardungo delarik.*

*"Que se revise toda la ordenanza vigente para poder corregir el lenguaje masculino de su redacción y pase a ser inclusivo en toda su extensión, dejando de poner "usuarios" para hablar de "usuarios y usuarias", entre otros ejemplos."*

Ondoren, PPren zuzenketa eztabaidatu da.

A continuación se procede a debatir la enmienda del PP.

Gonzalo Zorrilla-Lequericak esan du Getxoko Udalaren egoera ekonomikoa ikusirik musika eskolaren tasak izoztu beharko liratekeela, eta bere iritziz Eusko Jaurlaritzaren ekarpena gehitu beharko litzateke, eta modu arduratsuan Musika Eskolako ikasle kopurua gehitu beharko litzateke.

Gonzalo Zorrilla-Lequerica plantea que ante la situación económica del Ayuntamiento de Getxo se congelen las tasas de la escuela de música y cree que debe incrementarse la aportación del Gobierno Vasco e incrementar, de manera prudente, el número de alumnos de la Musika Eskola.

Ignacio Roblesek esan du proposamenaren alde egingo dutela, nahiz eta bere iritziz tasak gehiago igo beharko liratekeen, ez gobernu taldeak proposatutako % 5.

Ignacio Robles manifiesta que apoyarán la propuesta aunque en su opinión deben de subirse algo las tasas, pero no un 5% que plantea el equipo de gobierno.

Ibon Rodriguezek adierazi du kontra bozkatuko dutela, igotzearen alde baitaude, eta uste dute Eusko Jaurlaritzarekin aurrera egin behar dela akordioetan.

Ibon Rodríguez manifiesta que votarán en contra ya que son partidarios de subir y creen que se debe de avanzar en los acuerdos con el Gobierno Vasco.

Ignacio Uriartek berretsi du proposamenaren gehikuntza % 5ekoa dela, albo batera utzita txosten tekniko batean beste kopuru bat jasota egotea, beste proposamen bat kontuan hartuz egin baitzen.

Ignacio Uriarte insiste en que el incremento de la propuesta que se presenta es del 5% sin perjuicio de que en un informe técnico se indica otra cifra ya que se realizó bajo otra propuesta.

Ibon Rodriguezek adierazi du kopuruaren gehikuntzarekin erratu

Ibon Rodríguez manifiesta que si se ha confundido con el importe del

bada bere akatsa onartzen duela, baina gainerako arrazoiak mantendu egiten dituela.

incremento reconoce su error pero que el resto de argumentación se mantiene.

PPren zuzenketa (34156 sarrera erregistroa) baztertu egin da aldeko 7 botorekin (PP eta Elkarrekin Podemos) eta aurkako 17 botorekin (EAJ, EH Bildu eta PSE-EE).

Sometida a votación la enmienda del PP con registro de entrada nº 34156 es rechazada al obtener 7 votos a favor, PP, Elkarrekin Podemos; 17 votos en contra, PNV, EH Bildu, PSE-EE.

*"Karga tasei buruzko eranskina aldatzea eta 2019an ezarritako Irakaskuntza eta Azterketa zerbitzuei aplikatu beharreko tarifak mantentzea".*

*"Modificar el anexo correspondiente al tipo de gravámenes en el sentido de mantener las tarifas aplicables a los servicios de Enseñanza y Examen establecidas en 2019."*

Ignacio Uriartek proposamena aurkeztu du eta azaldu du % 5eko gehikuntza proposatu dutela, erabiltzaileen ekarpenei buruz zuzenketen eztabaidan adierazitakoa berretsiz.

Ignacio Uriarte presenta la propuesta indicando que se plantea un incremento del 5%, remitiéndose a lo manifestado en el debate de las enmiendas sobre las aportaciones de los usuarios.

Ignacio Roblesek uste du musika irakastea inbertsioa dela, eta ez gastua. Adierazi du udalaren aukera ekonomikoek justifikatu egingo luketela % 5 ez gehitzea. Uste dute neurri horiekin eskaria murriztu nahi dela.

Ignacio Robles cree que la enseñanza musical es una inversión y no un gasto. Manifiesta que las posibilidades económicas del ayuntamiento justificarían no incrementar un 5%. Creen que con las medidas planteadas se busca reducir la demanda.

Ibon Rodriguezek Elkarrekin Podemosi galdetu dio ea zergatik getxotar guztiek lagundu behar dieten musika ikasten dutenei eta ez dantza edo bestelako arte alorrak ikasten dituztenei. Bere ustez Eusko Jaurlaritzari ekarpenak gehitzeko eskatu behar zaio, erakunde hori baita ordaindu beharrekotik urrunen dagoena. Gobernu taldeak oposizioarekin lan egiteko duen interes falta kritikatu du, baina abstenitu egingo dira, erabiltzaileen ekarpenak gehitu behar direla uste dutelako.

Ibon Rodríguez pregunta a Elkarrekin Podemos por qué toda la ciudadanía de Getxo tiene que ayudar económicamente a los que estudian música y no a los que estudian danza u otras disciplinas artísticas. Cree que hay que exigir al Gobierno Vasco que incremente su aportación ya que es la que está más alejada en cuanto a la cuantía que se debe alcanzar. Critica la falta de interés del equipo de gobierno en trabajar con la oposición, pero se abstendrán porque están de acuerdo en hay que incrementar la aportación de los usuarios.

Irantzu Uriartek esan du Musika Eskolaren zuzendaritza batzordeari esan zaion bezala, hiru herenen finantzazio eredura hurbildu beharra dagoela, eta EUDELen bitartez Eusko Jaurlaritzarekin lanean ari dira. Elkarrekin Podemosi esan dio behin bakarrik eskatu zituztela Musika Eskolari buruzko datuak, eta eman zitzaizkiela. Esan du baita ere Getxoko musika irakaskuntza alor horretan aurreratuenen dauden gainerako Europako herrialdeetako hiri homologagarrietakoen antzekoa dela.

Irantzu Uriarte manifiesta que, tal como se ha informado en la junta rectora de la Musika Eskola, hay que ir acercándose a la financiación de los tres tercios y están trabajando, a través de EUDEL, con el Gobierno Vasco. A Elkarrekin Podemos le manifiesta que una sola vez han pedido datos de la Musika Eskola y se han facilitado. Indica también que la enseñanza del aprendizaje musical en Getxo es similar al de ciudades homologables de los países europeos más avanzados en la enseñanza musical.

Proposamena bozkatu da, eta honako emaitza hau lortu da: 14 boto alde (EAJ eta PSE-EE); 7 boto kontra, (PP eta Elkarrekin Podemos) eta 3 abstentzio (EH Bildu).

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 14 votos a favor, PNV, PSE-EE; 7 votos en contra, PP, Elkarrekin Podemos; 3 abstenciones, EH Bildu.

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas por mayoría se acuerda:

LEHENENGOA.- Behin-behinean onetsiko da Getxoko Andres Isasi Udal Musika Eskolako zerbitzugintzagatiko tasa arautzen dituen ordenantza fiskalaren aldaketa, eranskin gisa bidali den dokumentuan (aldaketa-proiektua) jasotako terminoetan. Irakaskuntza eta azterketa zerbitzuei aplikatu beharreko tarifak % 5 gehitzean datza aldaketa; tarifa horiek ERANSKINAREN 3. epigrafean jasota daude. TARIFA, honako emaitza hauekin:

PRIMERO.- Aprobar con carácter provisional la modificación de la Ordenanza Fiscal reguladora de la tasa por la prestación de servicios en la Escuela de Música Municipal Andrés Isasi de Getxo, en los términos del documento que se adjunta como anexo (Proyecto de modificación). Dicha modificación consiste en el incremento en un 5% de las tarifas aplicables a los servicios de Enseñanza y Examen, recogidas en el epígrafe 3 del ANEXO. TARIFA, resultando los siguientes importes:

Ikasturteko Matrikula 31,50 euro

Matrícula por curso académico 31,50 euros.

Irakaskuntza kuotak

Cuotas de enseñanza

Tresna 368,55 euro

Instrumento 368,55 Euros
Contacto con instrumento 47,25 Euros

Tresnarekin ukitze 47,25 euro
Irakasgai kolektiboak* 207,90 euro

Asignaturas colectivas* 207,90 Euros

Hizkuntza inklusiboa jasotzea ordenantzaren behin betiko testuan, zeina espedientean baitago.

Recoger el lenguaje inclusivo en el texto definitivo de la ordenanza, que obra en el expediente.

BIGARRENA.- Behin betiko onartzen denean, aldatutako testu horrek ondorioak izango ditu 2020ko martxoaren 1etik aurrera, Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 15. eta 16. artikuluetan xedatutakoa betez.

SEGUNDO.- El texto modificado, una vez definitivamente aprobado, surtirá efectos a partir del 1 de marzo de 2020, en cumplimiento de lo dispuesto en los artículos 15 y 16 de la Norma Foral 9/2005 de 16 de diciembre, reguladora de las Haciendas Locales.

HIRUGARRENA.- Zerga ordenantzaren aldaketaren behin-behineko onespena udaletxe honetako iragarki oholean 30 egunez jartzeko aginduko da. Hala, interesdunek espedientea aztertu eta komenigarritzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

TERCERO.- Ordenar la publicación de la aprobación provisional de la modificación de la Ordenanza Fiscal afectada en el tablón de anuncios de este Ayuntamiento durante el plazo de 30 días hábiles, a fin de que los interesados puedan examinar el expediente y presentar las reclamaciones que estimen oportunas.

Jendaurreko erakustaldia BAOn iragarriko da, baita lurralde historiko honetan zabalkunderik handiena duten egunkarietako batean ere.

Anunciar dicha exposición al público en el B.O.B y en uno de los diarios de mayor difusión de este Territorio Histórico.

LAUGARRENA.- Erreklamaziorik aurkeztu ez bada, behin betikotzat jotzea ordenantza aldatzeko behin-behineko erabakia.

CUARTO.- Elevar a definitivo el acuerdo provisional de modificación de la de la Ordenanza si no se han presentado reclamaciones.

ERANSKINA/ANEXO

**GETXOKO ANDRES ISASI MUSIKA ESKOLAN ZERBITZUAK JASOTZEKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA ALDATZEKO PROIEKTUA.**

**Sarrera**

**PROYECTO DE MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LA TASA POR PRESTACIÓN DE SERVICIOS EN LA ESCUELA DE MÚSICA ANDRES ISASI DE GETXO.**

**Preámbulo**

Aldaketa honen ondorioz, irakaskuntza- nahiz azterketa-kuotak gehituko dira, Musika Eskolaren autofinantzaketaren koefizientea gehitzeko; zehazki, ordenantzako ERANSKINAREN 3. epigrafean izango du eragina. Aldaketa hau aplikatuko da eta ondorioak izango ditu 2020ko martxoaren 1etik aurrera (2020-2021 ikasturterako eta hurrengoetarako).

La presente modificación se concreta en la subida de las cuotas de enseñanza y examen con el objeto de elevar el coeficiente de autofinanciación de la Escuela de Música y afecta, concretamente, al epígrafe 3 "del ANEXO de la ordenanza. La modificación se aplicará con efectos desde el 1 de marzo de 2020 (aplicable al curso escolar 2020-2021 y siguientes).

**Bakarra:** Irakaskuntza- eta azterketa-zerbitzuei aplikatu beharreko tarifak % 5 gehituko dira; tarifa horiek ERANSKINAREN 3. epigrafean ("TARIFA") jasota daude. Epigrafe hori honela geratuko da idatzita:

**Único.** Se incrementan en un 5% las tarifas aplicables a los servicios de Enseñanza y Examen, recogidas en el epígrafe 3 del ANEXO. TARIFA, quedando el mismo redactado en los siguientes términos:

**"3. IRAKASKUNTZA ETA AZTERKETA**

Ikasturte bakoitzeko matrikula: 31,50 euro.

Irakaskuntza kuotak:

Musika-tresna: 368,55 euro
Kontaktua musika-tresnarekin: 47,25 euro
Ikasgai kolektiboak*: 207,90 euro

Ikasgai kolektiboak: Musika eta mugimendua, musika-hizkuntza, orkestra, banda, korua, ganbera-taldea, konboa, informatika musikala, ahots-teknika.

Irakaskuntza indartuaren kuotak ziklo bakoitzean eman beharreko arreta pertsonalaren arabera aplikatuko dira, betiere musika-tresnaren irakaskuntzari dagokion kuota abiapuntu hartuz".

**"3. ENSEÑANZA Y EXAMEN**

Matrícula por curso académico 31,50 euros.

Cuotas de enseñanza:

Instrumento: 368,55 Euros
Contacto con instrumento 47,25 Euros
Asignaturas colectivas*:207,90 Euros

Asignaturas colectivas: Música y movimiento, Lenguaje musical, Orquesta, Banda, Coro, Conjunto de cámara, combo, Informática Musical, Técnica vocal.

Las cuotas correspondientes a la enseñanza reforzada se aplicarán en función de la atención personal a cada ciclo, tomándose como base de partida la cuota correspondiente a la enseñanza de

instrumento."

**158.- GETXO KIROLAK TEA-N ZERBITZUAK EMATEAGATIK ETA KIROL ETA KULTUR JARDUERAK EGITEAGATIKO TASAREN ZERGA-ORDENANTZAREN ALDARAZPENA BEHIN-BEHINEAN ONESTEA.**

Puntuari buruz eztabaidatzen hasi aurretik Ibon Rodriguezek Udalaren Araubide Organikoaren 96. artikuluarekin bat eginez proposamenarekiko desadostasun juridikoa adierazten den Udaleko Kontu-Hartzailetzaren txostena irakurtzea nahi du.

Alkateak hala eskatuta idazkari nagusiak esku hartu du, eta esan du artikulu hori indargabetu egin dela UAOren azken aldaketa partzialaren bidez.

Ondoren, Elkarrekin Podemosen zuzenketak eztabaidatu dira.

Paula Amievaren iritziz horrelako erabaki bat ezin da orain dela hamar urteko datuetan oinarrituta hartu, gehikuntza proposamena garrantzitsua baita. Bere iritziz txostenetan hizkuntza inklusiboa erabiltzeko ahalegina egin behar da, legez ere horrela ezarrita baitago gainera. Familia ugarien hobariei dagokienez uste dute diskriminatzaileak direla, ez baitira kontuan hartzen mota guztietako familiak, eta ez dutelako loturarik ezta ere onuradunen erosteko ahalmenarekin. Bukatzeko esan dute foru araubidean eta konstituzioan jasotzen ez diren irizpideen arabera

**158.- APROBACIÓN PROVISIONAL DE MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LA TASA POR LA PRESTACION DE SERVICIOS Y REALIZACIÓN DE ACTIVIDADES DEPORTIVAS Y CULTURALES EN EL O.A.L. GETXO KIROLAK.**

Antes de iniciar el debate del punto Ibon Rodríguez quiere que, en base al art. 96 del Reglamento Orgánico Municipal, se lea el informe de la Intervención municipal en el que se recoge una disconformidad jurídica con la propuesta.

A petición de la Alcaldesa interviene el Secretario General que manifiesta que el citado artículo ha sido derogado por la última modificación parcial del ROM.

A continuación se debaten las enmiendas de Elkarrekin Podemos.

Paula Amieva estima que no se puede tomar una decisión como la que se propone basándose en datos de hace una década, ya que la propuesta de incremento es importante. Opina que debe hacerse un esfuerzo respecto a la utilización del lenguaje inclusivo en los informes, cuestión que además es exigible legalmente. Respecto a las bonificaciones por familias numerosas opinan que son discriminatorias ya que no se tienen en cuenta todo tipo de familias y tampoco se relacionan con el poder adquisitivo de los beneficiarios. Finalmente manifiestan su oposición a que se discrimine en función de

diskriminatzearen aurka daudela.

Gonzalo Ayok esan du ados daudela hizkuntza inklusiboa erabiltzearekin, eta uste dute 2010ean defizit handia egonik, orain ere mantendu daitezkeela, besteak beste tasak 2007tik eguneratu gabe baitaude adibidez.

Ibon Rodriguezek esan du Elkarrekin Podemosen osoko zuzenketa babestuko dutela, Getxo Kirolaken tasak oso konplexuak baitira, eta sakontasunez berrikusi behar baitira. 2016an hasitako azterketak ez zuen aurrera egin. Ados daude Getxoko abonatuek eta gainerakoek ezberdin ordaintzearekin, getxotarrek gastu osoaren zati handi bat finantzatzen duten zergekin gehiago ordaintzen dutelako, baina hala ere aitortu du nahi hori zuzentasunez jasotzeko proposamenak berrikusi behar direla. Familia ugarien hobariei dagokienez, zuzenketa babestuko dute, tarifetan jada jasota daudelako. Hizkuntza inklusiboari buruzko zuzenketarekin ados daude.

Ignacio Uriartek esan du proposamenaren helburua tarifak eguneratzea dela, orain dela hamar urte ingurutik ez direlako aldatu, eta udalak kostu osoaren % 60 ordaintzen baitu, eta beharrezkoa da erabiltzaileek gehiago ordaintzea. Bere ustez proposamenak legezkotasuna betetzen du, tasa gehitzean aurretiazko testua mantentzen baita. Getxo Kirolaken lanean ari dira ordenantza fiskalen idazketak berrikusten, gaur egungo beharretara egokitzeko eta gaur egungo desadostasun juridikoak ekiditeko.

Paula Amievak esan du tamalgarria

criterios que no tienen encaje en la normativa foral ni en la Constitución.

Gonzalo Ayo manifiesta que están de acuerdo con el lenguaje inclusivo y creen que si el año 2010 existía un déficit importante, nada hace suponer que ahora no exista cuando llevan las tasas sin actualizarse desde el año 2007.

Ibon Rodríguez indica que apoyarán la enmienda a la totalidad de Elkarrekin Podemos ya que las tasas de Getxo Kirolak son muy complejas y necesitan una revisión en profundidad. En el año 2016 se inició un estudio que no prosperó. Apoyan que no paguen lo mismo los abonados getxoztarrak que el resto de abonados ya que los getxoztarrak además aportan con sus impuestos que financian gran parte del gasto total aunque reconoce que para recoger correctamente esa voluntad es necesario revisar las propuestas. Respecto a las bonificaciones a las familias numerosas apoya la enmienda porque las tarifas ya las recoge. Con la enmienda del lenguaje inclusivo manifiestan su acuerdo.

Ignacio Uriarte indica que la propuesta tiene como finalidad actualizar las tarifas ya que no se han modificado desde hace aproximadamente diez años y el ayuntamiento aporta el 60% del coste total y es necesario que los usuarios aporten más. Opina que la propuesta no vulnera la legalidad ya que se limita al incremento de la tasa igual que la redacción preexistente. Se está trabajando en Getxo Kirolak en la revisión de la redacción de las ordenanzas fiscales a fin de adecuarlas a las necesidades actuales y evitar las discrepancias jurídicas existentes.

Paula Amieva lamenta que el PNV no

dela EAJk Elkarrekin Podemosen proposamenei buruz ezer ez esatea, errespetu falta dela uste baitu. Bere ustez bidegabekoa da alkatetzak proposamen hori kontrako txosten baten arabera bozkatzea, txosten teknikoen arabera proposamenak ez baitu legezkotasuna betetzen, tarifak diskriminatzen dituelako auzotasunaren arabera. Ez dute egokitzat jotzen proposamenaren oinarriak orain dela hamar urteko datuak izatea, eta proposamenak foru araubidean eta konstituzioan jasotakoak ez betetzea, eta alkatetzaren erabaki politikoetan oinarrituz bozkatzearen aurka daude.

se pronuncie sobre las propuestas de Elkarrekin Podemos, lo que le parece poco respetuoso. Le parece una arbitrariedad que la Alcaldía se limite a votar esta propuesta con un informe desfavorable porque la propuesta no se ajusta, según los informes técnicos, a la legalidad porque discrimina las tarifas en función de la vecindad. Insiste en que ven mal que la propuesta se base en datos de hace diez años y que la propuesta vulnera la normativa foral y la Constitución y que se va a votar por decisión política de la Alcaldesa.

Gonzalo Ayok esan du datu objektiboa dela 2016 urtean ustiapen defizita egon zela, eta bere ustez oraindik ere badago.

Gonzalo Ayo indica que es un dato objetivo que el año 2016 tiene un déficit de explotación y que estima que ahora también sigue existiendo.

Ignacio Uriartek esan du ezberdintasunak urteetan zehar daudela onuradunen auzotasunaren arabera, eta berak proposatzen du tarifa bat eguneratzea, eta hori onetsiko ez balitz ezberdintasuna mantenduko litzateke, eta gainera, udalaren jasangarritasun ekonomikoaren aurka joango litzateke.

Ignacio Uriarte indica que la diferenciación existe desde hace años respecto a la vecindad de los beneficiarios y lo que se propone es actualizar una tarifa y su no aprobación mantendría también la diferenciación y además iría contra la sostenibilidad económica del ayuntamiento.

Jarraian, Elkarrekin Podemosen erregistratutako zuzenketa bozkatu da (erregistro zk.: 34236), eta ezetsi egin da: aldeko 5 boto (EH Bildu eta Elkarrekin Podemos), kontrako 14 boto (EAJ eta PSE-EE) eta 5 abstentzio (PP) egon dira.

A continuación se somete a votación la enmienda de Elkarrekin Podemos con registro de entrada nº 34236 que es rechazada al obtener 5 votos a favor, EH Bildu, Elkarrekin Podemos; 14 votos en contra, PNV, PSE-EE; 5 abstenciones, PP.

*"Gobernu Taldeak egindako proposamen onespena atzeratu egingo da Getxo Kirolaken jardueren Kostu Analitikoen Azterketako eguneratutako datuak izan arte, horiek izango baitira Getxo Kirolaken*

*"Que se posponga la aprobación de la propuesta elevada por el Equipo de Gobierno hasta que se disponga de unos datos actualizados dentro del Estudio Analítico de Costes de las actividades de Getxo Kirolak como marco para adoptar*

*zerbitzuen kostuen errealitate ekonomikoari lotutako tarifen inguruko erabakiak hartzeko esparrua. "*

*decisiones sobre un nivel tarifario ajustado a la realidad económica del coste de los servicios de Getxo Kirolak. "*

Elkarrekin Podemosen zuzenketa ( 34239 sarrera erregistroa) bozkatu da eta aho batez onetsi dute.

Se somete a votación la enmienda de Elkarrekin Podemos con registro de entrada nº 34239 que es aprobada por unanimidad.

*"Indarrean dagoen ordenantza guztia berrikustea hizkuntza maskulinoa zuzentzeko eta inklusiboa izateko, gaztelaniaz adibidez "los particulares" jarri beharrean "los y las particulares" jarriz besteak beste".*

*"Que se revise toda la ordenanza vigente para poder corregir el lenguaje masculino de su redacción y pase a ser inclusivo en toda su extensión, dejando de poner "los particulares" para hablar de "los y las particulares", entre otros ejemplos."*

Elkarrekin Podemosen zuzenketa bozkatu da (34242 sarrera erregistroa), eta ukatu egin da aldeko 5 botorekin (EH Bildu eta Elkarrekin Podemos) eta kontrako 19 botorekin (EAJ, PP eta PSE-EE).

Se somete a votación la enmienda de Elkarrekin Podemos con registro de entrada nº 34242 que es rechazada al obtener 5 votos a favor, EH Bildu, Elkarrekin Podemos; 19 votos en contra, PNV, PP, PSE-EE.

*"Hobarien atalean 8. artikulua kentzea proposatu dugu, bakarrik familia ugariei buruzkoa dena, beste familia motak baztertzen dituelako".*

*"Dentro del apartado de Bonificaciones, proponemos eliminar el artículo 8 referido en exclusiva a las familias numerosas, ya que lo consideramos excluyente con otros tipos de familias."*

Elkarrekin Podemosen zuzenketa bozkatu da (34244 sarrera erregistroa) eta onetsi egin da, aldeko 19 botorekin (EAJ, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos; PSE-EE) eta kontrako 5 botorekin (PP).

Se somete a votación la enmienda de Elkarrekin Podemos con registro de entrada nº 34244 que es aprobada al obtener 19 votos a favor, PNV, EH Bildu, Elkarrekin Podemos; PSE-EE; 5 votos en contra, PP.

*"Tasek printzipio diskriminatzaileei erantzuten dieten onura fiskalik edo tarifa hobaridunik ez izateko proposatutako irizpideak berrikustea".*

*"Que se revisen los criterios propuestos para que las tasas no incluyan beneficios fiscales o tarifas bonificadas que respondan a principios discriminatorios."*

Jarraian PPren zuzenketa aztertu da.

A continuación se debate la enmienda del PP.

Gonzalo Zorrilla-Lequericak esan du ez dutela ulertzen nola 2010etik tarifak gehitu ez diren arren orain gehikuntza

Gonzalo Zorrilla-Lequerica indica que no entienden que pese a que no se hayan subido las tarifas desde el año

hain handia proposatu izana, kontuan hartuta instalakuntzek nahikoa narriadura jasan dutela. Bere ustez posible da tasak % 5 jaistea eta azken urteetan jaitsitako abonatu kopurua gehitzea, azken urteetan abonatuak galdu baitira besteak beste kirol instalakuntzen egoerarengatik. Instalakuntzak hobetuz gero, abonatuak gehituko dira, eta ondorioz, baita diru-sarrerak ere.

Paula Amievak esan du familien egoera ekonomikoa ikusirik, ez dela tasak gehitzeko unea, eta beraz, proposamenaren alde egingo dute.

Ibon Rodriguezek esan du zuzenketaren aurka bozkatuko dutela, eta adierazi du instalakuntzak hobetzeko diru gehiago sartu behar dela. PPk beti tasak eta zergak jaistea proposatzen du. Gehikuntza justifikatu gabe dagoela uste dute, eta ez dituzte ulertzen ezta ere PPk tarifak jaisteko emandako arrazoiak.

Ignacio Uriartek esan du erabaki behar dutela ea Getxo Kirolakeko gastuak nagusiki erabiltzaileek edo herritar guztiek ordaindu behar dituzten. Gaur egun erabiltzaileek % 40 inguru ordaintzen dute. Erabiltzaileek gehiago ordainduz gero, udaleko diru-sarrera gutxiago erabili beharko lirateke Getxo Kirolaken. Bere iritziz benetako eztabaidaren oinarria ez da gehikuntza.

Gonzalo Zorrilla-Lequericak esan du abonatuek % 5 gehiago ordainduko dutela. Urtero, azken lau urteetan, abonatu kopurua jaitsi da, eta gehikuntza horrekin eta kirol instalakuntzak konpondu gabe, abonatu kopurua are gehiago jaitsiko da. Gobernu taldeak kirol

2010 se plantee un incremento tan importante, teniendo en cuenta el deterioro que han sufrido las instalaciones. Cree que es posible rebajar las tasas en un 5% e incrementar el número de abonados que en los últimos años se ha reducido, en parte por la situación de las instalaciones deportivas. Si se mejoran las instalaciones se incrementarán los abonados y por tanto los ingresos.

Paula Amieva manifiesta que ante la situación económica de las familias cree que no es el momento de incrementar tasas por lo que apoyarán la propuesta.

Ibon Rodríguez manifiesta que votarán en contra dela enmienda y para mejorar las instalaciones es necesario ingresar más. El PP siempre se plantea bajar tasas e impuestos. No ven justificado el incremento pero tampoco el razonamiento del PP para bajar las tarifas.

Ignacio Uriarte indica que la cuestión es si los gastos de Getxo Kirolak tienen que ser mayoritariamente abonados por los usuarios o por toda la ciudadanía. Actualmente los usuarios pagan cerca del 40%. Si los usuarios pagan más supone tener que destinar menos ingresos municipales a Getxo Kirolak. Cree que el debate real no es el incremento que se propone.

Gonzalo Zorrilla-Lequerica indica que abonados les va a costar un 5% más. Cada año en los últimos cuatro años se ha bajado el número de abonados y con esta subida y sin mejoras en las instalaciones deportivas supondrá disminuir el número de abonados. No ve al equipo de gobierno con voluntad de mejorar las instalaciones deportivas.

instalakuntzak hobetzeko nahirik ez duela uste du.

Paula Amievak esan du tarifen igoeraren eta jaitsieraren arteko bitarteko proposamen bat egotea gustatuko litzaiekeela, eta horregatik proposamenaren alde egingo dutela, baina EAJren ikuspegia enpresakoa dela, eta gehikuntza horrekin zenbait pertsonek ezin izango dituztela ikastaroak egin adierazi du.

Paula Amieva indica que les gustaría una propuesta intermedia entre la subida de tarifas y la bajada de las mismas y por eso apoyarán la propuesta, pero el PNV está enfocando el tema desde un punto de vista empresarial y el incremento va a imposibilitar a algunas personas acceder a los cursos.

Ibon Rodriguezek esan du eztabaidatzeko gaia dela, eta EH Bilduk zehaztu egin nahi duela erabiltzaileek eta udalak zenbat ordaindu behar duten, baina proposamena % 5 gehitzea dela, baina ez guztiei, baizik eta ikastaroetan parte hartzen duten abonatuei, eta ez dira gehitzen banakako sarrerak eta antzekoak.

Ibon Rodríguez indica que el debate debe ser, y EH Bildu está de acuerdo, en definir cuánto tienen que pagar los usuarios y cuánto el ayuntamiento pero la propuesta se limita a plantear un incremento del 5%, pero no a todos sino solo a los abonados que asisten a los cursos y no se incrementan las entradas individuales y similares.

Ignacio Uriartek esan du ez dakiela eskaeraren malgutasuna nolakoa den, eta ez du uste tarifak jaitsiz gero abonatu gehiago egongo liratekeenik. Fadura hobetzeko 20 milioi euro pixkanaka inbertitzeko proiektua dago, eta udalbatzak badaki egiten ari diren inbertsioetako batzuk zeintzuk diren. Elkarrekin Podemosi esan dio Getxo Kirolaken bi hobari mota daudela, gaitasun ekonomikoa eta familien partaide kopurua uztartzen dituztenak, eta horren bitartez, herritar guztiek Getxo Kirolaken onurak jaso ditzakete, egoera ekonomikoa albo batera utzita.

Ignacio Uriarte indica que desconoce la elasticidad de la demanda y no cree que por bajar las tarifas haya más abonados. Se está en un proyecto de invertir 20 millones de manera paulatina para mejorar Fadura y el pleno conoce ya parte de las inversiones que se están ejecutando. A Elkarrekin Podemos le manifiesta que en Getxo Kirolak hay dos tipos de bonificaciones que conjugan la capacidad económica y también el número de miembros de las familias, lo que posibilita que ningún vecino se quede sin acceder a Getxo Kirolak por su situación económica.

PPren zuzenketa (34158 sarrera erregistroa) baztertu egin da aldeko 7 botorekin (PP eta Elkarrekin Podemos) eta aurkako 17 botorekin (EAJ, EH Bildu eta PSE-EE).

Sometida a votación la enmienda del PP con registro de entrada nº 34158 es rechazada al obtener 7 votos a favor, PP, Elkarrekin Podemos; 17 votos en contra, PNV, EH Bildu, PSE-EE.

*"% 5 murriztuko dira, 0,15en*

*"Reducción en un 5 %, redondeando a múltiples de 0,15, de las tarifas aplicables a*

*multiploetara borobilduta, A) ABONATUAK eta D) JARDUERA FISIKOKO IKASTAROAK ataletan jasotako zerbitzuei aplikatu beharreko tarifak.*

*los servicios recogidos en A) PERSONAS ABONADAS y D) CURSOS DE ACTIVIDAD FÍSICA."*

Ignacio Uriartek abonuen eta ikastaroen prezioa % 5 gehitzeko proposamena aurkeztu du.

Ignacio Uriarte presenta la propuesta que se limita a incrementar un 5% el precio de los abonos y de los cursos.

Paula Amievak esan du aurka bozkatuko dutela, berdintasun printzipioa urratzen duelako eta datu zaharretan oinarrituta dagoelako, eta gobernu taldeak berau izapidetzean ez dituelako kontuan hartu oposizioko taldeak.

Paula Amieva indica que votarán en contra de la propuesta porque vulnera el principio de igualdad y se basa en datos obsoletos y el equipo de gobierno, con su tramitación, no ha tenido en cuenta a los grupos de la oposición.

Ibon Rodriguezek esan du kasu honetan % 5 gehitzea proposatu dutela baina bakarrik prezio batzuetan, eta hori nahikoa arrazoi dela kontra bozkatzeko. Esan du Elkarrekin Podemosek bazekiela tasak aldatu egiten zirela auzotasuna kontuan hartuz, eta uste du ordenantza guztia aztertu behar dela, eta azterketa horretan talde bakoitzak bere iritzia eman behar duela. Kritikatu egin du baita ere erretiratuentzako hobariak egotea egoera ekonomikoa kontuan hartu gabe.

Ibon Rodríguez indica que en este caso se incrementa un 5% pero solo algunos precios, lo que es suficiente razón para votar en contra. Manifiesta que los grupos políticos de Elkarrekin Podemos ya conocían el problema de la diferenciación en las tasas por la vecindad y cree que hay que reflexionar sobre la totalidad de la ordenanza y en esta reflexión cada grupo planteará sus posiciones. También critica que haya bonificaciones para jubilados sin tener en cuenta la situación económica.

Eduardo Andrade bileratik joan da.

Eduardo Andrade se ausenta del pleno.

Alvaro Gonzalezek esan du Fadurako instalakuntzek 52 urte dituztela, baina hala ere oso ondo zainduta daudela. Tasak azkeneko aldiz 2007 urtean berrikusi ziren. Esan du talde guztiek nahikoa agiri dituztela Getxo Kirolaken gaur egungo aurrekontu defizitaren berri izateko, baina horretarako, datuak aztertu behar direla. Bere iritziz, aukera politikoa Getxo Kirolakek arrazoi ekonomikoengatik egiten dituen

Alvaro González manifiesta que las instalaciones de Fadura tienen 52 años pero están perfectamente cuidadas. La última revisión de las tasas fue en el año 2007. Manifiesta que todos los grupos tienen documentación suficiente como para saber el déficit presupuestario actual de Getxo Kirolak, pero para ello hay que trabajar en analizar los datos que se facilitan. Cree que la opción política se refleja en las bonificaciones que Getxo Kirolak

hobarietan ikusten da familia ugariak eta adinaren araberako erabiltzaileei egindakoak kontuan hartuz, hori egitean instalakuntzen erabilera erreala kontuan hartzen baita. Ez dira getxotarrak diskriminatzen, albo batera utzita beste udalerri batzuetakoak kanpoan utzi ahal izatea. Hurrengo bileretan tasen gaia gehiago aztertzeko ahaleginak egingo ditu, eta esan du Ibonek izandako elkarrizketa batzuk direla-eta badakizkiela gehikuntzen arrazoiak zeintzuk diren.

Ibon Rodriguezek esan du ez duela elkarrizketa pribaturik jakinarazi.

Proposamena bozkatu da, eta honako emaitza hau lortu da: aldeko 14 boto (EAJ eta PSE-EE) eta aurkako 9 boto (PP, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos).

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta, gehiengoz ondorengo erabaki da:

LEHENENGOA.- Behin-behinean onetsiko da Getxo Kirolak TEA-n zerbitzuak eta kirol eta kultur jarduerak egiteagatiko tasa arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketa, eranskin gisa bidali den dokumentuan (aldaketa-proiektua) jasotako terminoetan. Aipatutako aldaketa ERANSKINEKO A) ABONATUAK eta D) JARDUERA FISIKOKO IKASTAROAK ataletan jasotako zerbitzuei aplikatu beharreko tarifak % 5 igotzean datza, 0,15eko multiploetara borobilduta. Horrez gain, atal horietan gaztelerazko “empadronados” (erroldatuak), “abonados” (abonatuak) eta “ciudadanos” (hiritarrak) terminoak jarraian adierazitakoekin ordeztuko

realizar por razones económicas también a familias numerosas y a usuarios en función de la edad porque ésta se vincula al uso real de las instalaciones. No hay discriminación para la ciudadanía de Getxo sin perjuicio que pueda haber con respecto a ciudadanos de otros municipios. Intentará que en próximas reuniones se puedan abordar las tasas con más tiempo e indica que Ibon conoce por conversaciones mantenidas las razones de los incrementos.

Ibon Rodríguez replica que no ha desvelado ninguna conversación privada.

Sometida la propuesta a votación obtiene el siguiente resultado: 14 votos a favor, PNV, PSE-EE; 9 votos en contra, PP; EH Bildu, Elkarrekin Podemos.

A propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas por mayoría se acuerda:

PRIMERO.- Aprobar con carácter provisional la modificación de la Ordenanza Fiscal reguladora de la tasa por la prestación de servicios y realización de actividades deportivas y culturales en el O.A.L. Getxo Kirolak, en los términos del documento que se adjunta como anexo (Proyecto de modificación). Dicha modificación consiste en el incremento en un 5%, redondeando a múltiplos de 0,15, de las tarifas aplicables a los servicios recogidos en A) PERSONAS ABONADAS y D) CURSOS DE ACTIVIDAD FÍSICA del ANEXO. Asimismo, en estos apartados se sustituyen los términos “empadronados”, abonados” y “ciudadanos” por “personas

dira, hizkera ez-sexista erabiltzeko berdintasun araudia aplikatuz: "personas empadronadas" (erroldatutako pertsonak), "personas abonadas" (abonatutako pertsonak) eta "ciudadanía" ("hiritargoa).

empadronadas", "personas abonadas" y "ciudadanía" en aplicación de la normativa de igualdad para utilizar lenguaje no sexista.

Hizkuntza inklusiboa jasotzea ordenantzaren behin betiko testuan, zeina espedientean baitago.

Recoger el lenguaje inclusivo en el texto definitivo de la ordenanza, que obra en el expediente.

BIGARRENA.- Behin betiko onartzen denean, aldatutako testu horrek ondorioak izango ditu 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera, Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 15. eta 16. artikuluetan xedatutakoa betez.

SEGUNDO.- El texto modificado, una vez definitivamente aprobado, surtirá efectos a partir del 1 de enero de 2020, en cumplimiento de lo dispuesto en los artículos 15 y 16 de la Norma Foral 9/2005 de 16 de diciembre, reguladora de las Haciendas Locales.

HIRUGARRENA.- Zerga ordenantzaren aldaketaren behin-behineko onespena udaletxe honetako iragarki oholean 30 egunez jartzeko aginduko da. Hala, interesdunek espedientea aztertu eta komenigarritzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

TERCERO.- Ordenar la publicación de la aprobación provisional de la modificación de la Ordenanza Fiscal afectada en el tablón de anuncios de este Ayuntamiento durante el plazo de 30 días hábiles, a fin de que los interesados puedan examinar el expediente y presentar las reclamaciones que estimen oportunas.

Jendaurreko erakustaldia BAOn iragarriko da, baita lurralde historiko honetan zabalkunderik handiena duten egunkarietako batean ere.

Anunciar dicha exposición al público en el B.O.B y en uno de los diarios de mayor difusión de este Territorio Histórico.

LAUGARRENA.- Erreklamaziorik aurkeztu ez bada, behin betikotzat jotzea ordenantza aldatzeko behin-behineko erabakia.

CUARTO.- Elevar a definitivo el acuerdo provisional de modificación de la de la Ordenanza si no se han presentado reclamaciones.

BOSGARRENA.- Proposatutako irizpideak berrikustea, tasek diskriminazio-printzipioei erantzuten dieten zerga-onurarik edo hobaridun tarifarik izan ez dezaten.

QUINTO.- Revisar los criterios propuestos para que las tasas no incluyan beneficios fiscales o tarifas bonificadas que respondan a principios discriminatorios.

ERANSKINA/ANEXO

**GETXO KIROLAK TEA-N ZERBITZUAK EMATEAGATIK ETA KIROL ETA KULTUR JARDUERAK EGITEAGATIK SORTUTAKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA ALDATZEKO PROIEKTUA**

**Sarrera**

Aldaketa honen ondorioz zenbait tasa areagotuko dira, Getxo Kirolaken autofinantzaketaren koefizientea gehitzeko; zehazki, ordenantzako A) ABONATUAK eta D) JARDUERA FISIKOKO IKASTAROAK epigrafeetan izango du eragina. Aldaketa hau aplikatuko da eta ondorioak izango ditu 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera.

**Bakarra:** % 5 areagotuko dira, 0,15en multiploetara borobilduta, ERANSKINEKO A) ABONATUAK eta D) JARDUERA FISIKOKO IKASTAROAK ataletan jasotako zerbitzuei aplikatu beharreko tarifak. Horrez gain, atal horietan gaztelerazko "empadronados" (erroldatuak), "abonados" (abonatuak) eta "ciudadanos" (hiritarrak) terminoak jarraian adierazitakoekin ordeztuko dira, hizkera ez-sexista erabiltzeko berdintasun araudia aplikatuz: "personas empadronadas" (erroldatutako pertsonak), "personas abonadas" (abonatutako pertsonak) eta "ciudadanía" ("hiritargoa). Epigrafe horiek honela idatzita geldituko dira:

*"A) PERTSONA ABONATUAK*

**PROYECTO DE MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LA TASA POR LA PRESTACIÓN DE SERVICIOS Y REALIZACIÓN DE ACTIVIDADES DEPORTIVAS Y CULTURALES EN EL O.A.L. GETXO KIROLAK.**

**Preámbulo**

La presente modificación se concreta en la subida de algunas tarifas de la tasa con el objeto de elevar el coeficiente de autofinanciación de Getxo Kirolak y afecta, concretamente, a los Epígrafes a) PERSONAS ABONADAS y D) CURSOS DE ACTIVIDAD FÍSICA del ANEXO de la ordenanza. La modificación se aplicará con efectos desde el 1 de enero de 2020.

**Único.** Se incrementan en un 5%, redondeando a múltiplos de 0,15, las tarifas aplicables a los servicios recogidos en A) PERSONAS ABONADAS y D) CURSOS DE ACTIVIDAD FÍSICA del ANEXO. Asimismo, en estos apartados se sustituyen los términos "empadronados", abonados" y "ciudadanos" por "personas empadronadas", "personas abonadas" y "ciudadanía" en aplicación de la normativa de igualdad para utilizar lenguaje no sexista. Los citados epígrafes quedan redactados en los siguientes términos:

*" A) PERSONAS ABONADAS*

| Urteko ordainketa (1) / Abono Anual (1) | Erroldatuak/ Personas empadronadas | Erroldatu gabeak/ Personas no empadronadas |
|---|---|---|
| | Eurotan /Euros | Eurotan /Euros |
| FAMILIA-KUOTAK /CUOTAS FAMILIARES | | |
| Familia-kuota /Cuota Familiar | 181,20 | 343,50 |
| Familiadun bakarrekoa (2)/Individual Familiar (2) | 132,45 | 249,75 |
| 65 urtetik gorako familia-kuota /Cuota Familiar mayor 65 años | 59,85 | 343,50 |
| 0 eta 6 urte arteko seme-alaba bakoitzeko /Por cada hijo/a de 0 a 6 años | 1,20 | 2,40 |
| 7 eta 12 urte arteko seme-alaba bakoitzeko /Por cada hijo/a de 7 a 12 años | 5,10 | 10,05 |
| 13 eta 17 urte arteko seme-alaba bakoitzeko /Por cada hijo/a de 13 a 17 años | 9,45 | 18,00 |
| 18 eta 21 urte arteko seme-alaba bakoitzeko /Por cada hijo/a de 18 a 21 años | 28,65 | 58,05 |
| 22 eta 25 urte arteko seme-alaba bakoitzeko /Por cada hijo/a de 22 a 25 años | 48,60 | 91,20 |
| BANAKO KUOTAK /CUOTAS INDIVIDUALES | | |
| Banakoa (3)/Individual (3) | 118,65 | 221,70 |
| Banakoa, 26 urtetik beherakoentzat /Individual menor 26 años | 71,25 | 133,05 |
| Banakoa, 65 urtetik gorakoentzat Individual mayor 65 años | 31,20 | 221,70 |

(1) Abonatua izan daiteke urteko edozein momentutan, inskripzioaren lauhilekoari dagokion tasa ordainduz gero: 1. lauhilekoa = urteko kuotaren %100; 2. lauhilekoa = urteko kuotaren %80; 3. lauhilekoa = urteko kuotaren %40.

(1) Se puede conseguir la condición de persona abonada en cualquier momento del año, pagando la tasa correspondiente al cuatrimestre de inscripción: 1º cuatrimestre = 100% cuota anual; 2º cuatrimestre = 80% cuota anual; 3º cuatrimestre = 40% cuota anual.

(2) Alargunak, guraso bakarrekoak, bananduak eta dibortziatuak kontuan hartuko dira, egoera hori egiaztatzen badute.

(2) Se consideran a los/as viudos/as, monoparentales, separados/as y divorciados/as que acrediten tal situación.

(3) Banako pertsonak eta 25 urtetik gorako seme-alabak kontuan izango dira.

(3) Se incluyen las personas individuales y los/as hijos/as mayores de 25 años.

(4) Getxo Kirolak-ek hitzarmenak egin

(4) Getxo Kirolak podrá establecer

ahal izango ditu beste udalerriekin, erroldatutakoen tasak udalerri horietako herritarrenekin homologatzearren.

convenios con otros municipios para la homologación de sus tasas de personas empadronadas con las de la ciudadanía de los mismos.

Hitzarmen horietan ezarriko dira tasak homologatzeko baldintzak, eta, hala behar izanez gero, baita horietan aurreikusitako salbuespenak eta hobariak ere."

Los convenios establecerán las condiciones de homologación de las tasas y, en su caso, de las exenciones y bonificaciones en ellas previstas."

***"D. JARDUERA FISIKOKO IKASTAROAK***

Ikastaro guztietan, egin ahal izateko, gutxienez inskripzio-kopuru bat beharko da hasi baino hiru egun lehenago.

***" D) CURSOS DE ACTIVIDAD FÍSICA***

Todos los cursillos, para poder ser realizados, deberán contar con un número mínimo de inscripciones válidas tres días antes de su comienzo.

Ikastaroa egiteko gutxieneko pertsona-kopururik ez badago, ikastaroa bertan behera utziko da, eta izena emandakoei dirua itzuliko zaie.

En el caso de que no exista el número mínimo de personas para la realización de un curso, éste se suspenderá y se devolverá el importe a quienes estén inscritos.

Getxo Kirolak-ek antolatutako jarduera fisikoko ikastaroetan parte hartzeko, hileko zenbateko hauek ordainduko dira:

Por la participación en los cursos de actividad física organizados por Getxo Kirolak se pagará por mes:

| | **Saio bat Asteko-Hileko / 1 sesión sem-mes** | **Saio bi asteko-Hileko /2 sesión sem-mes** | **Hiru Saio asteko-Hileko /3 sesión sem-mes** | **Bost Saio asteko-Hileko /5 sesión sem-mes** | **Bost saio eguneko-hamabost eguneko /5 sesión Día-quincena** |
|---|---|---|---|---|---|
| Igeriketa helduak/ Natación personas adultas | 17,70 € | 27,90 € | 39,30 € | 49,95 € | |
| 16 urte baino gutxiago / Natación menores 16 años | 13,50 € | 17,70 € | 23,10 € | 27,90 € | |
| Erraketak Helduak erraketak / Raqueta personas adultas | 28,95 € | 39,30 € | 49,95 € | 66,75 € | |
| 16 urte baino | 17,70 € | 23,10 € | 27,90 € | 39,30 € | |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| gutxiago / Raqueta: menores 16 años | | | | | |
| Indoor Moduloa helduak / Indoor Módulos personas adultas | 17,70 € | 27,90 € | 39,30 € | 49,95 € | |
| Indoor moduloa 16 urte baino gutxiago /Indoor Módulos. Menores 16 años | 13,50 € | 17,70 € | 23,10 € | 27,90 € | |
| Outdoorra helduak / Outdoor Módulos personas adultas | 17,70 € | 27,90 € | 39,30 € | 49,95 € | |
| Outdorra 16 urte baino gutxiago / Outdoor Módulos Menores 16 años | 13,50 € | 17,70 € | 23,10 € | 27,90 € | |
| Uda taldeak /Verano grupos | | | | | 94,50 € |

(9) Getxo Kirolak-ek prezio eta denboraldi berezien promozioak eskaini ahal izango ditu.

(9) Getxo Kirolak podrá ofertar promociones con precios y períodos especiales.

(10) 72 urtetik gorakoei %50eko murrizketa aplikatuko zaie ikastaroetan.”

(10) A los mayores de 72 años se les aplica una reducción del 50% en los cursos.”

Eduardo Andrade bilerara etorri da.

Se incorpora Eduardo Andrade a la sesión.

**159.- JESUSEN BIHOTZAREN UDAL EGOITZAN EMANDAKO ZERBITZUEN TASAK ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZAREN ALDARAZPENA BEHIN-BEHINEAN ONESTEA.**

**159.- APROBACIÓN PROVISIONAL DE MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LAS TASAS POR LOS SERVICIOS PRESTADOS EN LA RESIDENCIA MUNICIPAL DEL SAGRADO CORAZÓN.**

Ondoren, Elkarrekin Podemosen zuzenketa eztabaidatu da.

Se procede a debatir la enmienda de Elkarrekin Podemos.

Paula Amievak esan du gehikuntzaren

Paula Amieva indica que están en

kontra daudela udalaren egoitzako prezioa oso altua delako, eta herritar guztiek ezin dutelako ordaindu. Bere ustez abantaila bat sortzen ari dira, udalak zerbitzuak emateagatik sektore pribatuak ezartzen dituen antzeko prezioak baititu.

Ignacio Uriartek erantzun du udalak % 48 ordaintzen duela, Bizkaiko Foru Aldundiak ere % 48, eta erabiltzaileek bakarrik % 3,60 ordaintzen dutela, eta gainera, erabiltzaileek ordaintzen dute tarifa beren errenta ekonomikora egokituta dagoela adierazi du.

Paula Amievak esan du ez duela egokitzat jotzen erabiltzaileek ordaintzen dutena administrazio publikoekin konparatzea, udala ez baita enpresa bat, eta tasak oso altuak dira.

Zuzenketa bozkatu dute eta ez da onartu, aldeko 7 botorekin (PP eta Elkarrekin Podemos), kontrako 14 botorekin (EAJ eta PSE-EE) eta 3 abstentziorekin (EH Bildu).

*"Orain arteko tasak mantentzea gehikuntzarik egin gabe, adinekoen egoitza eskariari erantzuna eman ahal izateko, udalerrian geroz eta nagusi gehiago baitaude; horrez gain, kontuan hartu behar dira baita ere menpekotasun maila handitu dutenak, askotan ezin izaten dutelako egoitzan jarraitu tasa modu honetan gehitzen baldin bada".*

Ondoren, PPren zuzenketa eztabaidatu da.

Gonzalo Zorrilla-Lequericak tarifak izoztea proposatu du, altuak baitira, eta udalaren egoera ekonomikoarekin

contra del incremento ya que el precio que se abona en la residencia municipal es muy alto y es un precio al que no toda la ciudadanía puede acceder. Cree que se está generando un privilegio ya que el ayuntamiento cobra por sus servicios un precio similar al sector privado.

Ignacio Uriarte replica que el ayuntamiento asume el 48% del costo, la Diputación Foral de Bizkaia el otro 48% y los usuarios solamente el 3,60% y que además la tarifa real que paga el usuario se acomoda a su renta económica.

